

Arrasate

PRESS

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2002ko azaroaren 22a / 607. zenbakia

**Ez geratu isilik. Salatu tratu txarrak.
Laguntza telefonoa: 943 79 09 00**

**Arrasateko Udalak kanpaina berezia abiaraziko du
tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei laguntzeko**


ORAIN ETA HEMEN: TREFSAKO PLAN BEREZIA/7 • KULTURA: MARGO TALDEAREN ERAKUSKETA/14

Edozein egoera menderatzen
lagunduko dizun auto betekin amets egiten duzu?
Vectra berria Orain, 16.500 €-tik aurrera.



Opel Vectra berria

Xasis berria Gidatzeko Sistema Interaktiboarekin (IDS), non direkzioak, frenoak eta esekidurak elkarrekin lan egiten duten errepidearen kontrol osoa lortzeko. Vectra guztiz berritua, Ecotec balbula anitzeko motor gama berritzailearekin: 2.2 DTI / 125 ZP edo 3.2 V6 / 211 ZP edo potentzia handiko motorra duen GTS bertsioa.



Opel. Ideia berriak. Auto hobekak.



*Fabrikatzaileak gomendatutako salneurria Penintsulan eta Balear Uharteetan Vectra Club 1.8 16 V modeloan. Hau guztia barne: garraioa, BEZa, matrikulazio zerga, Prever Plana eta berria ez den ibilgailuen akzioa. Hil bukaera arteko promozioa. Iragarkian agertzen den modeloa ez da eskaintzen dena.

Giauto Arrasate

Kontzesionario ofiziala:
San Andrés 10 D. Tel. 943 77 30 10. ARRASATE

www.giauto.es

KALEINKESTA/ 20 urtetik aurrera batez beste 16 kilo hartzen ditudugu. Egixe izengo da?



JOSE LUIS MENOR
Langillie

LUIS ENDINO
Langillie

JOSE LUIS ARANTZABAL
Jubilaue

AINHOA DÍEZ
Langillie

AMAIA ETXEBESTE
Ikaslie

MARIA DOLORES CABEZA
Langillie

Hori oso relatibue da. Nik gutxi gutxi 50 urte egin biher ditudut, eta hoge urte neuenen baino bost kilo gehiago besterik ez dauket. Andrie be ez da gizendu, eta maiek be iguel daguz.

Datu hori ondo dago, eta 30 urtetik aurrera gizentzen gara gehixen. Kaltziue gaizki metabolizetan dogulako, bestiek beste. Lanien be lehen baino ejerzizio txiki-xague egitten dogu.


Neuri kilo horreik larregi pentsetan jat. Ez dot uste askorik gizendu nazenik, baiñe geure denporan asko ibiltten gitzen, eta lana be gogorrague izeten zan. Horregaittik izengo zan.

Egixe da ohitturak aldaketan ditudugula. Kirol gutxiago egitten dogu, eta lanien hasten garenez, gutxiago mugiketan gare. Gimnasia jueteko denporie euki ezkeru, ondo; bestela...

Hori pertsonaren arabera izengo da. Beste batzuk gaitetan gizentxuek izen die, eta gero argaldu egin die. Hala be, ez dot uste jaten doguna erretoko nahikue kirol egitten dogunik.

Asko pentsetan jat. Egixe da urtiek aurrera egin ahala kiluek hartzen ditudugula, baiñe hamasei kilo asko die. Neuk uste dot ondo jaten dogula eta kirola be egitten dogula.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXALOAK BARANDA APROPOSA Olartetik Gazteluondora dihoan alde aldapatsuan baranda bat jarri berri dute. Ezagun da Arrasateko alde zaharreko hainbat aldapatan irristatzeko arriskua egoten dela eta batez ere jende nagusiak arazoak izaten dituela. Arrazoi horregatik, ARRASATE PRESSko zenbait irakurlek baranda hori jarri izana txalotu gura izan diote Udalarari. Horrela bedi!

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN/7	KIROLA /10	ZAHARRAK /17
Mobilizazioak izan ziren	Mondra, bide onetik	Psikogeriatria ikastaroa
Batasunaren legez kanporatzea salatzen mobilizazioak egin zituzten ikastetxe eta lantokietan.	Mondrak 1-7 irabazi zuen Ondarroan, eta bihar, Mutrikuren kontra jokatu du, Atxabalpen.	Hirugarren Adineko Institutu Komunitarioak Psikogeriatria ikastaroa antolatu berri du.

ASTEKO DATUA

3.856

LAGUNEK HARTU DUTE GRIPEAREN TXERTOIA

Hiru mila zortziehun eta berrogeita hamasei lagunek hartu dute gripearen aurkako txertoia Arrasaten. Kopuru horretatik, seihun eta hirurogei lagun gaitxo kronikoak dira.

BESTEKE SANA

Leintz bailaran Oñati eta Aramaio ere sartzen baditugu, Arrasate ikusten dugu gainerakoen begirada guztien biltokian. Baina garbi ikusten dugu aitzindariak izan zirela, alde batetik industrian -burniola ospetsuak, meatze aberatsei esker- eta bestetik merkataritzan, gure arbasoek Europako merkaturik garrantzitsuenetaraino eraman baitzituzten hemengo produktuak. Horrek guztiak abantaila ekarri zien arrasatearrei kultura eta hezkuntza arloetan ere. Arrasateko kokapen geografiko estrategikoak aldeko eragina adierazi zuen arrasatear gizartearen bilakaeran. Gatzaga, Eskoriatza eta Aretxabaleta isil eta bekaiztiak gertatu zirela esango nuke"

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL
'EUSKONEWS'/02-11-01

HERRITARREN BERBAK/ Ander Elortondo



Eta biziak aurrera darrai!

Umeena eta nagusiena, jendearengan hunkidura eragiteko adinak dira. Norbait gaixo egotean, argi sumatzen du inguruko jarrera goxoa. Jauriaritza ordea, ez zaio axola gaixo euskaldunak, nagusi edo umea izan arren. Euskal gaixoei momentu gogor horietan euskaraz egiteak, gure agintarientzat ez baitu balorerik. Osakidetzari, euskaraz hezitako hiru urteko ume elebakarrei, gazte-eraz egin dezala eskatzea normala iruditzen zaio, medikuak euskaraz jakitea ordea gehiegi-keria.

Nahi eta nahiez sartu behar digute trena. *Uy, uy, uy.* Ez du atsedetik hartuko gure herrian, azkar, oso azkar pasa behar da eta. *Uy, uy, uy.* Pasa dadin, gure mendi eta bailarak izorratuko ditu. Norbaiten poltsikoak, hondamendia ereinez, diruz beteko dira. *Uy, uy, uy.* Zulatu dituzte jada gure mendi barrenak, ama lurrari

lapurtu dizkiote bihotzetik lehen laginak. *Uy, uy, uy.* Ez izan zalantzarik 'Y'-a izango dela, 'U'-ak proiektu guztia atzeratzea dakar eta. Poltsikoak bete behar dituztenek ez dute ezertxo itxaroteko gogorik. *Uy, uy, uy.* IUk ez du indarririk, boterea ez baitago

praketan, poltsikotan baizik; eta hauek ez dira bereak.

Gaur egun lanean, makina baten botoi bat sakatzeko, maisu industrialia izan behar. Fotokopiak ateratzeko batxilergoa gutxienez.

Administrariak ziklo erdiko unibertitarioak nahitaez. Teknikoak lizentziatuak ezin bestez. Zein ote inongo ikasketa gabe, urtean hamar milioi pezetako nomina irabaz daitekeen poztua? Erantzuna hain erraza izanik ez espero saririk.

Herritar xume honek beste guztiak bezala trena eta Osakidetzaren irentsi beharko ditu, baina ez gaitzela lelotzat hartu, jakin badakigu zer digeritzen ari garen.

"Zulatu dituzte jada gure mendi barrenak, ama lurrari lapurtu dizkiote bihotzetik lehen laginak"

Arrasate PRESS
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran
ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai
MAKETAZIOA
Alex Azkarate
ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla
Izaskun Boliñaga
Natali Martínez
Imanol Elortza
ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaiñzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Julen Aranguren
LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88
ISSN
0214-4654
TIRADA
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriaritzako Kultura saila



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Aramaioko Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 22**
Amezua. Santa Marina 32 943 79 09 74
- ZAPATUA, 23**
Zabala. Zarugalde 42. 943 77 16 30
- DOMEKA, 24**
Ruiz. Maala 31. 943 79 14 09
- ASTELEHENA, 25**
Español. Araba etorb. 17 943 79 18 65
- MARTITZENA, 26**
Azkoaga. Ferrerías 5. 943 79 15 15
- EGUAZTENA, 27**
Azkoaga. Iturriotz 33. 943 79 79 99
- EGUENA, 28**
Corcuera. Maisu Aranbarri 1 943 79 22 26

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. 943 03 53 00
Igalatorioa. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11
- LARRIALDIAK**
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

- AMBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. egun osoa

- Arrasate**
Astelehenetik egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:
medikuntza orok eta pediatria 943 03 52 50
• Espzialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea. 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

- AMBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44

- ERTZAINZA**
Arrasate 943 79 71 99

- SUHILTZAILERAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuaren egoitza 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron. 943 77 01 05

MEZAK

- San Joan parrokia**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna)
- San Andres eliza**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz)
- San Frantzisko eliza**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz)
- Santa Teresa eliza**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:00 San Isidron (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
- Santa Marinako eliza**
Jaiegun bezpera eta zapatua
19:00 (gaztelaniaz)
Domeka
12:00 (gaztelaniaz)
- Uribarri parrokia**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)

OHARRAK

INSTITUTUKOEN BAZKARIA
Institutuaren 25. urteurrenean, irakasleendako eta ikasle ohiendako bazkaria antolatu dute, azaroaren 30ean (zapatua), 14:30ean, Uarkape jatetxean. Azaroaren 26a aurretik Institutura deitu edo Euskadiko Kutxan 22 euro sartu.

EGUENETAKO ZINEKLUBA
Eguenean (azaroak 28), *El Secreto* filma emango dute Amaia Udal Antzokian, 21:30ean.

IGNACIO RAMONET
Eguenean (azaroak 28), Ignacio Ramonetek berbaldia egingo du, Goi Eskola Politeknikoan, 18:30ean. *Globalizazio liberala eta gizarte erreakzioa -pentsamendu bakarraren inguruan-* berba izango du.

'EUSKARAZ DIBERTITU'
Eguaztenean (azaroak 27), Asisko Urmenetak eta Kike Amonarrirek *Euskaraz dibertitzeko manierak* berbaldia egingo dute, Monterronen, 19:00etan. AEDk antolatuta eta Kultur Errotaren eskutik.

ELIKADURA ETA OSASUNA
Datorren eguaztenean eta eguenean, elikaduraren eta osasunaren gaineko berbaldiak, Monterronen.

AEDrenAGENDA

BERTSOZALEAK
Joan den astean bertso-afarian izan ziren lagun batzuek erabaki dute egubakoitz iluntzetan AEDko txokoan batzea. Zeuk ere parte hartu!

ZAHARBERRIKO IZENEMATEA
Zaharberri euskaldun zaharren eta euskaldun berrien premia dute.

URBANOENORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
- IBILBIDEA:** Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
- IBILBIDEA:** Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

'Arrasate, frantsesen menpeko garaian'

Urtetan lanean ibili ondoren, Arrasate Zientzia Elkarteke partaideek *Arrasate, frantsesen menpeko garaian* liburua aurkeztu zuten. Liburuak zortziehun orrialde dauzka, 1807tik 1813ra dagozkionak. Lanaren egileek orain dela hamar urte aurkeztu zuten liburua, udaletxean.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Maikaria"



Mahaia bete jende.
- *Etxe artan maikaria juntatzen die egunero.*
Mahaia bete janari ere bai.
- *Jesus, au da maikaria jarri dozuna iru lagunendako.*

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Sara Vitoria psikologikoarekin

Zergatik nago triste? izenburupean lantegia zuzenduko du Sara Vitoria psikologoa. Ekin Emakume Elkarteak antolatuta hasiko den lantegiaren nondik norakoak jakiteko, asteon, psikologoa irratian izan da, eta aste bukaeran ere elkarrizketa hori entzuteko aukera izango duzue. Gorka Zubillagarekin eta Ibai Garairekin izandako solasaldia ere errepikatuko dugu. Patinetaarekin sarri ibiltzen dira, eta *skater* talde bat eratu gura dute Arrasaten.



Umeen eskolaratze goiztiarra hizpide

Hilabete gutxi dituen umea umezaintzara bidaltzeak zein ondorio izan ditzake? Gaia, duda barik, interesgarria da, eta horretaz jabetuta Mondragon Unibertsitateak jardunaldiak antolatu ditu Arrasaten. Gaur hasiko dira jardunaldiok, eta bihar bukatu. Astelehenean, berriz, unibertsitateko bi irakasle etorriko dira irratira, jardunaldietan zer esan eta entzun den aipatzera. Hain zuzen ere, 09:30ean izango da hori, astelehenean, azaroak 25.

HAUGIROA!

MINIMOA Domeka, 17	3°C
MAXIMOA Eguaztena, 13	19°C
ASTEKO EURIA (l/m²)	24,8 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 13	19°C	11°C	3,7 l/m²
Eguena, 14	15°C	7°C	1,5 l/m²
Egubakoitza, 15	14°C	6°C	- l/m²
Zapatua, 16	15°C	5°C	- l/m²
Domeka, 17	16°C	3°C	0,4 l/m²
Astelehena, 18	16°C	7°C	- l/m²
Martitzena, 12	18°C	5°C	19,2 l/m²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
09:00 Albistegia
09:20 Eguneko agenda.
09:30 Igo autobusera: Aitziber Aranburuzabala.
10:00 Euskadi Irratiko albistegia.
10:06 Igo Autobusera.
11:00 Euskadi Irratiko albistegia.
11:20 Arrasate Irratiko albistegia.
11:30 Eguerdiko hamabi arte: efe-merideak, zozketak, zorion agurrak...
12:00 Euskadi Irratiko albistegia
12:06 Musika berriaren tartea.
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Goizeko saioaren errepikapena.
19:00-21:00-23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra
- ASTELEHENA**
20:00 MIR: Gaizka Vitoria eta Iban Idigoras
- MARTITZENA**
20:00 Txortxorrien: Mikel Aranburu eta Jokin Etxebarria.
- ZAPATUA**
11:00 Asteko elkarrizketak: Sara Vitoria, Eusebio Iñarra eta Pilar Beitia, Ainhoa Larrañaga...
- DOMEKA**
11:00 Asteko elkarrizketak

ASTEABIHITZETAN

Ekin-en egueneroko informazio lantegiak

Dagoeneko ari dira Ekin Emakumeak Elkartek antolatuta-ko ikastaroak egiten. Hain zuzen ere, *Zeintzuk dira nire eskubideak* izeneko lantegia lantzen ibili dira. Datorren egunean, bestalde, *Zergatik nago triste?* lantegirekin hasiko dira, abenduaren 19ra bitartean. Sara Vitoria psikologoak izango du lantegi horren ardura. Eskolak eguenero izango dira, 18:30etik 19:30era. Oro har, emakumeengan gertatzen diren aldaketak aztertuko dituzte, zenbaitetan sentitzen duten tristuraren jatorrira iristeko.

Zilarrezko Q saria Fagorri

Fagor taldea zorioneko dago; izan ere, etxetresna txikien negozioak Eusko Jaurlaritzak ematen duen zilarrezko Q saria jaso berri du. Ziurtagiri horrek kudeaketaren kalitatea saritzen du, eta dagoeneko Fagorko bi negoziok eskuratu dute sari hori.

Euskalit Fundazioak eman dio saria Fagorri. Euskalit Fundazioaren txostenak dio Fagorren etxetresna txikien negozioaren kudeaketa bide onetik doala. Horrez gain, besteak beste, azpimarratu dute negozio horrek aspalditik duela barneratuta kalitatearen kontzeptu tradizionala, eta kalitate osoaren kudeaketaren garrantzia bere gain hartu duela.

Gatazkari irtenbidea aurkitzeko

Joan den egunean (hilak 14), Gorka Espiauk berbaldia egin zuen, Arrasaten, Elkarriren izenean. Oro har, balorazio positiboa egin zuen taldeak berak abian ipinitako Bake Konferentziaren gainean. Horrez gain, Bake Bidea izeneko proposamena ere aurkeztu zuen Gorka Espiauk, euskal gatazkari irtenbidea emateko proposamen gisa. Eta lehen-dakariaren proposamena ere berbagai izan zuen.



Txokolate eta kafe dastatzea

Harreman gobernu kanpoko erakundeak antolatuta, herrialde pobreetan ekoiztutako produktuen dastatzea izan zen zapatuan Arrasaten. Besteak beste, Txiapasko eta Peruko kafea eta Boliviako txokolatea dastatzeko aukera izan zen. Produktu horiek bultzatzea lortu gura zuten.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Armada barik, atsedunik ez!

Gertaera askoz serioago-ak izaten diren arren, ez gara beti serio arituko. Irakurri berri dudan albiste bat gogora ekarri gura dut. Barregura handia sortarazi dit, eta ez da gutxiagorako! Itxura denez, Melillako portuan, Espainia-ko Armadaren kamioi batean 760 kilo haxix aurkitu dituzte. Defentsa sailburua-ren esanetan, kamioiak

kuarteleetik kanpo bi egun igaro zituen, eta norbaitek haxixa barruan sartu zuen. Espainiako irrati batek esandakoaren arabera, ordea, kamioia portura heldu berria zen txakurrek haxixa antzeman zutenean.

Berdin dio benetan zer gertatu den -barregarri gelditu direlako-, baina gertaera horren harira bi ideia nabarmenduko nituz-

ke: bata, egungo gizartean armadek gero eta zentzu txikiagoa dutela. Are gutxiago, euren kamioietan edonor sartu ahal bada (Defentsako bertsioa sinisten duenaren-dako!); eta, bestea, Espainia-ko gobernu droga ilegalekin gaiarekin hipokrita hutsa dela. Drogek (guztiekin) diru asko mugitzen dute, eta, ilegalak badira, askoz gehiago! Guardia Zibilean gayak onartu dituzte eta Armadan, aipatutakoa. Itxura aldatzen ari dira?

ASTEKOIRUDIA



IKER BARANDIARAN

UDABERRIRAKO INDARBERRI DAITEZEN, ADARRAK ETA HOSTOAK KENDU DIZKIETE ZUHAITZEI

Urtero moduan, aurten ere Udalak kontratatutako langileek herriko zuhaitzei adarrak eta hostoak kentzen ibili dira. Izan dute nahiko lan; izan ere, norbaiti eskerrak, zuhaitz banaka batzuk gelditzen dira oraindik herrian, askorik ez badira ere. Udaberrian indarberrituta egon daitezen, zuhaitzei inausketa

egiten diete urtero. Zuhaitzen onerako izango dela uste dugu, horretarako daude-eta adituak! Dena dela, badirudi aurtengo negua hotza datorrela, eta, bada-ezpada ere, hobe zuhaitzak larregi biluzten ez badi- tuzte. Gizajoei kutsadura dezente arnastu behar izaten dute, eta ez ditu, bada, hotzak hilko! /I.B.

ad Ibabe

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g.

Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea, 10
Tel.: 943 79 52 50

BASATI
TABERNA

PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK

TLF. 943 711762

GIZARTEA/ Azaroak 25: Emakumeok Bizi Dugun Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna

Tratu txarrak jasaten dituzten emakumeok laguntzeko udal kanpaina abiaraziko da

UBANE MADERA

Datorren astelehenean (azaroak 25), Emakumeok Bizi Dugun Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna izango da. Arrasatean ere gogora ekarriko dute egun hori, eta, besteak beste, kanpaina berezi bat abiaraziko dute, erasoak jasan dituzten emakumeei laguntzeko.

Emakumeen kontrako indarkeria bizi-bizi dago gizartearen. Tratu txar ugariren berri komunikabideen bitartez izaten dugu; edozelan ere, badira beste kasu mordoa komunikabideetan agertu ere ez direnak egiten.

Horrelakoak entzuten ditugunean, maiz pentsatzen dugu hori ez dela gure inguruan gertatzen; are gutxiago, geure herrian edo atarian. Baina ez da horrela. Ezta gutxiago ere.

Arrasateko Udalean, iaz, gai horrekin lotutako 40 dei jaso zituzten, gure ibarretik. Askok informazio eske deitu zuten. Baina pertsona horien atzean, beti, tratu txarrekin lotutako kasuren bat egon ohi da.

Beste dei batzuk tratu txarren berri zuzena emateko izan ziren; gero, horietako emakume batzuek senarra salatu egin dute.

UDAL SALAKETA

Egoera hori dela eta, Arrasateko Udalak bat egin du Emakundeek plazaratutako adierazpen instituzionalarekin; besteak beste, tratu txarrak salatu eta emakumeei laguntza emateko eskaintza egin eta konpromisoa hartu du Arrasate-



AITOR URIZAR

Arrasateko Udalean, iaz, gai horrekin lotutako 40 dei jaso zituzten gure ibarretik.

ko Udalak adierazpen horretan.

Horrez gainera, eta astelehenean Emakumeok Bizi Dugun Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta, alde batetik,

kartelada egingo dute, 19:00etan, herriko plazan; eta, bestetik, kanpaina berezi bat abiaraziko du Arrasateko Udalak, astelehenean bertan.

LAGUNTZA TELEFONOA: 943 79 09 00

Maite Barreñak argitu digu zertan datzan kanpaina hori. Zera adierazi digu: "Orain arte tratu txarrak jasaten dituzten emakumeengana

zuzendu izan garenean informazio askorekin joan izan gara, telefono askorekin: Osakidetza, telefonoa eman izan zaie, Udaltzaingoa, Emakume Sailarena... Hortaz, pentsatu dugu zerbitzu guztien arteko koordinazioa bultzatu behar dela. Horretarako, telefono zerbaki bakarra emango dugu. Asmoa da tratu txar fisiko zein psikologikoak sufritzen dituen edozein emakumeri gugana jotzeko aukera ematea, eta gero, guk aktibatuko ditugu emakumeak behar dituen zerbitzu guztiak: medikuarengana joan behar badu, gu arduratuko gara; salaketa jarri gura badu, gu arduratuko gara, laguntza juridikoa behar badu, psikologikoa...".

Zerbitzu hori orain abiarazteko zergatia honakoa da, Maite Barreñaren esanetan: "Udaltzaingoa zerbitzua hogeita lau ordukoa denez, hauxe da guretako une egokia".

Horrela, bada, Udalaren bera telefonora deitu beharko da erasoren baten aurrean: **943 79 09 00** zenbakira, hortaz. "Gura izan dugulako telefono erraza izatea, jendeak erraz identifikatzeko". Era berean, Maite Barreñak adierazi du norberaren inguruan (familian, lagun artean edo norbera bizi den ingurutik gertu) tratu txarrak gertatzen diren susmoren bat izanez gero, telefono horretan abisua ere eman daitekeela.

HERRIAREN KONPROMISOA

Zerbitzu horrekin batera, eta kanpaina berri horren barruan, Arrasateko Udalak beste ekimen bat ere abiaraziko du: datorren astelehe-

"Gertatzen ari zaidana kontatzeak lotsa ematen dit"



Emakumeen kontrako tratu txarrak geurean ere gertatzen direla argi uzteko biderik zuzenena adibidea ipintzea da. Eta, hain zuzen ere, horixe egin dugu:

tratu txarrak jasaten ari den emakume bati honako elkarrizketa hau egin diogu. Ulergarria den moduan, ez dugu emakume horren gaineko datuak emango, jakina, ezta argazkirik erakutsiko ere. Baina, haren anonimotasunetik, tratu txarrak jasaten ari diren emakumeen berri gordina eman digu:

Zelan hasi ziren tratu txarrak? Egoera leherrarazteko arrazoi jakinen bat izan zen?

Arrazoi askogatik hasi ziren, tonta-

keriengatik; haren esana ez betetzearren, jelsiagatik, nire lagunekin egoteagatik...

Tratu txarrak fisikoak izaten dira, psikologikoak, edo bietakoak?

Mota guztietakoak.

Zenbat denboran izan zinen egoera hori jasaten, inori kontatu ezinda eta salatu ezinda?

Urtetan, urte askoan. Orduan ez nuen esaten, eta orain ere ez dut esaten. Oso jende gutxi du nire egoeraren berri.

Lotsa ematen dit, eta, gainera, seme-alabak hortxe daude. Baina dagoeneko ezin dut gehiago.

Denborarekin tratu txarrak okertuz joaten dira?

Beti da okerrago.

Zeini kontatu zenion gertatzen ari zitzazuna (famiarioren bati, lagun bati...)?

Hasieran, lagun bati; eta emakumeei laguntzeko zerbitzura lagundu zidan hark.

Zelan bizi dute zure seme-alabek horrelako egoera gogorra?

Txikiak dira oraindik, baina beldur izaten dira. Dagoeneko eskolan arazoak dituzte.

Zein arrazoi ematen dizkizu senarrrak zu horrela tratatzeko?

Lehen esan dudan moduan, arrazoi ugari: tontakeriak, ez dudalako egin hark esandakoa...

Zure egoera salatzeko laguntzaren bat izan duzu zeure ingurutik kanpo (erakundeetatik, legearen aldetik...)?

Udaletik laguntza ematen ahalegintzen ari dira, baina... Oso gaitza da... Eta seme-alabak ere hortxe daude...

Zer esango zenieke zeure egoera berean dauden emakumeei?

Zerbait egin dezatela lehenbailehen, bestela, geroago eta okerrago izango dela.

Zerbait salatu gura duzu gizartearen aurrean?

ren aurrean?

Euretariko asko kalean lasai paseatzen ibiltzen direla, eurei horrelakorik gertatu ez zaienez...

Gizarteak ezikusiarrena egiten du, ezer gertatuko ez balitz bezala. Horrelakoak beste leku batzuetan gertatuko balira bezala, eta bakarrik alkoholikoekin eta horrelakoekin gertatuko balira bezala. Baina hemen ere gertatzen dira horrelakoak, eta uste duguna baino sarriago.

Noizbait damutu zara laguntza eskatzeagatik? Eta beste zerbaitengatik?

Ez naiz damutzen laguntza eskatzeagatik; oso ondo tratatu naute. Baina babes handiagoko behar da gizartearen aldetik.

Gertatzen ari zaidana kontatzeak lotsa ematen dit, gizarteak koitadua bazina bezala tratatzen zaituelako. Eta nik ez diot inori penarik eman gura, ezta lastimaririk ere; gizarteak gure arazoa uler dezan gura dut.

Emakumeei eraziko dute

"Emakumeen kontrako erasoak salatzeak, Udalaren telefonoa emango dute: 943 79 09 00"

"Uste dugu mereziko diola sufrimendu horrekin amaitzea, irabazi egingo duela"

"Erasoen kontrako txertorik gogorra eta bakarria aukera berdintasuna bultzatzea da"

ere, uste dugu zalantzen aurrean irabazi egin dezakeela, eta sufrimendu horrekin amaitzea mereziko diola; egoerak baduela irtenbidea".

ERASO GEHIENAK, GERTUAN

Lehen esan dugun moduan, ezin dugu ahaztu emakumeen kontrako erasoak leku guztietan ematen direla. Maite Barreñak esan digu ezin dela erasotzaileen profirik egin: "Ez dira profil bakarrekoak. Eta, jakina, Arrasaten badira horrelakoak".

Heziketak duen garrantziaz ere abisatu digu Maite Barreñak: "Emakumezkoak beldurretan hezten gaituzte: gizonzko ezezagunekiko beldurrean, gauean bakarrik ibiltzearekiko beldurrean... ustez bortxatu egin behar gaituztelakoan-edo. Horrelakoak gertatzen dira, jakina, baina gutxienezkoak dira. Eta azpimarratu behar da askotan indarkeria norberaren etxe barruan gertatzen dela; normalean, erasoak, bortxaketak... oso inguru gertuan izaten dira: senideren bat izaten da, lagunena bat, lankidea...".

GIZONEN JARRERAREN GARRANTZIA

Bestalde, gizonzkoen jarrera ere aztertzen ari dira tratatu txarrei eta erasoak dagokienez: "Emakumezkoen tratatu txarren inguruko gaiak direnean emakumezkoek eraman izan dugu salaketaren zama, eta, neurri handi baten, geurea izan da ardura ere. Horrez gain, gizonzko batzuek bigarren mailako gizaiki gisa ikusten gaituzte emakumezkoak; eta mota horretako gizonengana iristea oso gaitza da. Hau da, gizon horien iritziak baino garrantzi txikiagoa duen edozein emakumezko bere eskubideen defentsan etorri gero, ez diote batere kasurik egingo".

Hortaz, erasoen aurrean gizonzkoen jarrera aldaketa oso garrantzitsua dela adierazi digu Maite Barreñak. Jarrera aktiboagoa izan behar dute.

KONPONBIDEA = BERDINTASUNA

Dena dela, Emakume Saileko teknikariak uste du diskriminazioa dela emakumeen kontrako erasoen jatorria: "Erasoak diskriminazioaren erakuslerik gordinena dira. Gizonak erasotzen gaituzte diskriminatzen gaituztelako eta pentsatzen dutelako bigarren mailako pertsonak garela. Eurek guk baino eskubide gehiago dituztela uste dutelako. Eta, orduan, erasoen aurrean dagoen txertorik gogorra eta bakarria -esango nuke nik- da gizonzkoen eta emakumezkoen arteko aukera berdintasuna bultzatzea. Eta Arrasateko Udala horretan ari da".



Ezker abertzalearen aldeko mobilizazioak Arrasaten

Erasoak gelditu. Demokrazia Euskal Herriarentzat lelopean manifestazioa izan zen eguzten iluntzean Arrasaten. Horrez gain, goizean, herriko zenbait eskolatan kale bilkurak izan ziren, eta Almenen, adibidez, parodia bat ere egin zuten. Horrekin batera, kooperatibetako langile talde bi ere irten ziren protesta egitera; San Andresko eta Garagartzako Fagorren lantegietako zenbait langile, hain zuzen. Eta, *Marko juridiko-politiko baten alde, Euskal Herriak du hitza eta erabakia* lelopean LAB sindikatuak auto-karabana egin zuen, Eskoriatzan hasi eta ibarrean zehar.

Bestalde, datorren azaroaren 30ean (zapateria) Donostian manifestazioa egiteko deia dagoela eta, autobusa antolatu dute Arrasatetik joan gura duenarendako. Iratin eman behar da izena.

Trefasa inguruko plan bereziaren aurrelaburpena onartu dute

UM

Garaia Berrikuntza Gunearekin lotuta, A-22 izeneko gunerako plan bereziaren aurrelaburpena onartu du oraingo astean Gobernu batzordeak. Orain, jendaurrean izango da, gura duenaren alegazioak jasotzeko.

Garai Berrikuntza Gunea egitasmoaren zati bat A-22 izeneko gunean kokatuko da; hau da, Trefasa, Gautxori eta Mendibarren gunean, Uribarri auzoan. Eta, hain zuzen ere, oraingo asteko Gobernu batzordeak egitasmo hori garatzeko aurreneko pausoa eman du: plan bereziaren aurrelaburpena onartzea, hain zuzen ere. Orain, planaren aurrelaburpen hori hilabetez jendaurrean ipini dute, gura duenak ikusi eta alegazioak ipintzeko.

HIRU HELBURU

Plan horrek hiru helburu nagusi ditu: batetik, Mondragon Unibertsitatearen hazkundea ziurtatuko duen gune propio bat sortzea; bestetik, Fagor Ederlanen eraikina bere horretan uztea (ikerketarekin lotutako ekimenterako erabiltzea da asmoa) eta, aldi berean, zenbait baserri botatzea; eta, hirugarrenik, Tre-

fasa, Gautxori-Mendibarren izeneko gunea bere onera ekartzea.

BASERRIEN EGOERA

Horrek guztiak honakoa esan gura du, laburbilduta: batetik, Mendi-Gain, Mendi-Azpi eta Mendi-Barren baserriak bere horretan utziko dituztela, bota barik. Uribarri-Goikoa eta Uribarri-Behekoa baserriak, berriz, bota egin beharko dituzte, baita Muñoa lantegia ere. Izan ere, azken hiru

eraikin horiek ordenaziotik kanpo geratzen dira.

BIRIBILUNE BERRIA

Horrez gainera, Uribarri etorbideko autoen zirkulazioa bideratzeko biribilunea ipiniko dute. Era berean, aparkalekuendako lekua gordetzea ere zehaztu dute. Eta, gutxienez, 2.600 m² gordeko dituzte berdeguneak eta antzerakoak egiteko.

Horrekin batera, Aramaio errekarren ibaiertzak garbitzeko asmoa ere badute A-22rako plan berezian.

Lan horiek guztiak ez dituzte batera egingo, zatika baizik. Dena dela, oraindik epeak guztiz finkatu barik daude.

EZAGUTZAREN ZIRKULAZIOA

Garaia egitasmoarekin zera lotu gura dute, besteak beste: ezagutzaren zirkulazioa bultzatzea. Horretarako, enpresen, ikerketaguneen eta unibertsitateen arteko lotura bultzatzea ezinbestekoa da. Hortaz, oro har, hiru gune batuko ditu Garaia egitasmoak: batetik, unibertsitatea; bestetik, institutuak eta zentro teknologikoak; eta, hirugarrenik, enpresak eta ikerketa proiektuak. Oro har, nortasun propioa duen gunea sortu gura dute.

Gutxienez, 2.600 m² gordeko dituzte berdeguneak eta antzerakoak egiteko

Enpresen, ikerketaguneen eta unibertsitatearen arteko lotura bultzatu gura dute

ELKARRIZKETA

JABI ARIZABALETA/ARRASATEARRA

“Polita da, batzuetan gogorra, baina une politak egoten dira”

ARRASATE PRESS

A sko irten dira hemendik Santiago Bidea edo Donejakue Bidea egiteko asmoarekin. Horietako bat da Jabi Arizabaleta arrasatearra; gaur, egubakoitza, zen helmugara iristeko, baina guk bidean harrapatu dugu.

Non zabilta orain (martitzena da, hilak 19)? Eta zelan?

Portomarinen nago, Lugon. Egubakoitzerako Santiagora iristea espero dut, baina gero, bidea segitzeko asmoa dut, Finisterre-raino. Gaur, oso eguraldi eskasa dugu, euria eta euria. Euskal Herria ematen du honek! Baina animoso nabil. Gainera, jende asko dago; uste baino gehiago: kanpotarrak, euskaldunak...

Azaroaren leian irten zinen, azterketaren bat egin eta gero...

Bilbon oposizioak egin nituen, eta arratsaldean bertan irten nintzen, 15:00etan; Gatzagaraino joan nintzen lehenengo egunean.

Zenbat kilometro daude Arrasatetik Santiagora?


700 eskas, apur bat gutxiago.

Motxila eta zu zoazte?

Bai, lagunik handiena da.

Eta bakarra?

Ez, Burgoseraino-edo bakarrik joan nintzen, baina handik aurrera taldetxo bat elkartu gara. Nor bere erritmoan ibiltzen da, baina



ARIZABALETA FAMILIA

gero, afaltzeko-eta elkartu egiten gara.

Zelako jendea dabil?

Batzuk oso xebreak. Japoniar birekin egin dut topo, Zeelanda Berriko batekin...

Zelan dago bidea?

Oso ondo markatuta dago, eta ez dago galtzeko beldurrik.

Errepikatzeko moduko esperientzia da?

Bai, oso polita da. Batzuetan, gogorra, baina oso momentu politak egoten dira.


Sumatu duzu zerbaiten falta motxilan?

Ba, akaso libururen bat; ekartzekotan egon nintzen, baina...



Gas isurketa Arrasaten

Astelehen eguerdian, gas isurketa izan zen Eskola Politeknikoko sarreratik gertu. Kolektorearen lanak direla-eta, Loramendi kalean zuloak egin dituzte, eta horretan ari zen hondeatzeko makina batek gas hodi bat zulatu zuen. Udaltzainek zenbait kale itxi behar izan zituzten, eta, horren ondorioz, auto ilara luzeak izan ziren. Hala ere, laster konpondu zuten arazoa, eta ez zen ezer gertatu.



Arrasaten 3.856 lagunek hartu dute txertoa.

Jende gehiagok hartu du gripearen kontrako txertoa

ARRASATE PRESS

Eusko Jaurlaritzak urtero egiten duen gripearen kontrako txertaketa kanpaina duela egun batzuk amaitu zen. Arrasateko datuen arabera, igo egin da txertoa hartu duten lagunen kopurua.

Gripearen kontrako hamabosgarren kanpaina izan da aurten-go. Eta, emandako datuen arabera, Arrasaten 3.856 lagunek hartu dute txerto hori. Halaxe adierazi digu Arrasaten kanpaina horren ardura duen Edurne Marañoñek.

Ia 4.000 lagun horietatik, 173k borondatez hartu dute txertoa. Hau da, ez dira kanpainaren helburu ziren giza taldeen barrukoak. Izan ere, 65 urtetik gorakoei eta gazteago izanda gaixotasun kronikoren bat dutenei zuzendutakoa izan ohi da Eusko Jaurlaritzaren ekimen hori.

Azken bi talde horien barruan, 660 txerto gaixo kronikoei hartu dituzte eta gainerako 3.000 pasatxoak, berriz, 65 urtetik gorakoei. Eta, azken talde horren kasuan, 65 urtetik gorako herritarren %69k hartu dute aurten txertoa, iaz baino %1 gehiagok, hain zuzen ere.

LABUR

Kontu-korrante bi zabaldu dituzte, jaiotzan lagundu gura duenak ekarpenak egin ditzan

Joan den astean jakinarazi genuen moduan, aurten ere jaiotza antolatzen ari dira San Andres eta San Juan parrokiak kideak. Baina horretarako laguntza behar dute: dirua eta lanerako jendea, hain zuzen. Hori dela eta, batetik, bi kontu-korrante zabaldu dituzte, dirua batzeko. Gura duenak Kutxan edo Euskadiko Kutxan eman dezake dirulaguntza. Horrez gain, norbait lanerako gertu izanez gero, parte hartzeko deia ere egin dute. Iaz, Santa Barbaran ipini zuten jaiotza; eta aurten, seguruenik, Laubiden ipiniko dute.

Aldaketak egin dituzte Markuleteko industrialderako egitasmoen barruan

Oraingo asteko Gobernu batzordean Markuleteko egitasmoen testu bateratua aurkeztu du Hirigintza Sailak. Besteak beste, zenbait aldaketa onartu dituzte Markuleteko ezarriko diren industria pabilioien lotizazioan, hau da, pabilioien ezaugarrietan. Horren ondorioz, adibidez, pabilioien gehienezko altura aldatu eta egokitu egin dute, pabilioi motaren arabera. Edozelan ere, interesa duenak onartutako testua ikusi egin dezake, jendaurrean izango da-eta hamabost egunez, gura duenak alegazioak egin ditzan.

Sorospen eta lehen laguntza ikastaroak izango dira Arrasaten

Gipuzkoako DYAK Sorospen eta laguntza ikastaroa antolatu du. Datorren astelehenan (hilak 25) hasiko da. Abenduaren 23ra artekoa izango da ikastaroa; guztira, 27 ordukoa. Lehen laguntzetan ezagutza lortu gura duen guztiei zuzendutako ikastaroa da. Horrez gain, Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleek kredituak lortu ahal izango dituzte ikastaroa eginez gero.

Ikastaroa Arrasateko Udalean izango da, eta arnas aparatua, bihotz arnas suspertzea, larrialdi medikoak eta zaurituen mugimenduen praktika landuko dituzte, besteak beste. Horren berri zabalagoa gura duenak dei dezala 943 46 46 22 telefonora.




EIBARKO EZKONTZA AZOKAN ARRASATEAR BI IZANGO DIRA

Oraingo asteburuan Eibarren izango den Ezkontza Azokan Alberto Pereda eta Eduardo Fernández lanean izango dira. Azoka hori urtero egiten dute, eta hainbat negoziok erakusketak jartzen dituzte. Esan beharrik ez dago ezkontzarekin harremana duten negozioak izaten direla: argazkilariak, ile apaindegiak, altzari dendak, hotelak...

EZIN HOBETO AED-K ANTOLATUTAKO BERTSO-AFARIAN

Berrogeita hamar lagun inguru elkartu ziren joan den egubakoitzean AEDren tabernan. Gaueko bederatzi eta erdiak aldera hasi ziren afaltzen, eta barrenak ondo bete eta gero, hamaikak aldera, bertsoan hasi ziren. Giroa, ezin hobea. Bertsoarako gaiak Arrasateko Bertso Eskolako ikasleek jarri zituzten, eta Aitor Mendiluzez eta Sustrai Colinaz gain, beste hainbat ere ahalegindu ziren bertsoak botatzen.



ORAINGOAN, ANGELI TOKATU ZAIO, BAINA ZEIN IZANGO DA HURRENGOA?

Angel oraingo asteburuan ezkonduko da. Ikusi egin behar argazkiko irribarreak zenbat irauten dion. Atzean dituen hamaika lotsagabeek ederto pasatu zuten Angelekin batera Gizaburuagan, Lekeitio ondoan. Asteburu osoa igaro zuten han, batek daki zertan, baina gauza bat badakigu, behintzat:

Angel *Zipi eta Zape* anaietako baten antzera jantzi zutela. Asteburuan, hortaz, ez zen Angel izan, *Zipi* izan zen. Eta batek daki komikiko pertsonaiak beste maltzurkeria egin ote zituen; baina, *Zipi*, edo Angel, argi izan horrelakoak amaitu direla. Zorionak, Angeli, baita Monikari ere!



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com



Aurrera Ondarroak jipoi ederra jaso zuen etxean: Mondrak 1-7 irabazi zion.

XABIER URZELAI

FUTBOLA

Mondrak hamaikagarren postuan dagoen Mutrikuren bisita izango du

Josu Zubiriaren mutilek 1-7 irabazi zioten Aurrera Ondarroa taldeari

XABIER URZELAI

Joan den asten, Mondrak erraz irabazi zuen Ondarroaren zelaian. Arrasatearren jokoa baino gehiago, golak egiteko duten erraztasuna izan zen partiduko azpimarragarriena. Guztira, 11 gol egin zituzten arrasatearrek, baina epaileak lau gol balio barik utzi zituen.

Partiduko lehenengo minutuetan parekotasuna izan zen nagusi, baina Ekainek ondo egindako jokaldi bat nahikoa izan zen Jon Muruak baloia sare artera bidaltzeko. Argi geratu zen Ondarroak ez zuela defentsa sendorik, eta arrasatearrek bikain aprobeztatu zuten hori. Bigarren golean ere Ekain izan zen protagonista, hark egin zuen-eta bi eta hutsekoa. Arrasatearrek ziren jokoan nagusi, baina defentsaren hutsegite txiki bat nahikoa izan zen Ondarroakoek 1-2koa egiteko.

Bazirudien argi ibili ezean Ondarroa taldea partiduari buelta emateko gai izango zela, baina irudipena baino ez zen izan. Mondra taldeak berehala egin zuen hirugarren gola, eta ordurako epaileak beste gol bat ere balio-

gabetu zuen.

BIGARREN ZATIAN, GOL GEHIAGO

Bigarren zatian gauzak ez ziren askorik aldatu. Mondra erasoan, gol aukera garbiekin, Ondarroa, berriz, defentsa lanetan ahal zuen guztia egiten. Epaileak Ondarroako bi jokalarik kalera bota zituen, eta Mondrari ederto etorri zitzaion hori. Iker Lópezek (bi gol), Asier Gonzálezek (gol bat) eta Jon Muruak (hiru gol) ez zuten barkatu. Aipagarria da azken jokalarik horrek daraman ibilbi-

dea. Azken bi partiduetan sei gol egin ditu. Edozelan ere, gol gehiago ere izan ziren, Iban Garairena, esate baterako; baina epaileak, gola balio gabetzeaz gain, jokalaria egotzi egin zuen, eta epaileak bakarrik jakingo du zergatik. Ez zen erabaki ulertezin bakarra izan, eta horrelako epailetan argi uzten dute zein mailatan gauden. Oraingo asteburuan, hamaikagarren postuan dagoen Mutriku izango da Atxabalpen. Arrasatearrek bigarren dira, eta Zumaiako hiru puntura baino ez dago.

Bide onetik

Mondra bide onetik doa. Orain arte sei partidu irabazi ditu, bi partidu berdindu eta bakarra galdu du, liderraren kontra. Erregional mailan gol gehien egin dituen taldea da: orain arte, 26 gol egin ditu, eta hamar gol jaso. Liderrak, Zumaiakok, aurreko astean berdindu egin zuen, eta dagoeneko hiru puntura baino ez dago. Zumaiakok ez du gol askorik egiten, baina lau gol baino ez ditu jaso, eta hortxe dago gakoa.

Bestalde, Ekain Garinek ez du gaurko *Goienkaria*-ko lehiaketan punturik jaso, baina guztiak merezi ditu. Hark, eta futbol zelaian lan zikina egiten duten beste jokalarik askok.

Arrasateko Errugbi Taldeak Irun izango du kontrario

XABIER URZELAI

Arrasateko oraingo asteburuan ere kanpoan jokatu du. Partidua bihar, zapatua, izango da. Irun taldea izango da kontrarioa, eta Playa-Haundi zelaian jokatu dute. Arrasateko lauretan hasiko da.

Arrasateko Errugbi Taldeak denboraldiko seigarren jardunaldia jokatu du oraingo asteburuan. Dagoeneko bost partidu jokatu dituzte, eta Patxi Gorosabelen mutilek oraindik ez dute partidurik galdu. Orain arte jokatu-tako partiduetatik, lau irabazi dituzte, eta bat berdindu.

PLENTZIAN, BERDINKETA

Joan den asteburuan, arrasatearrek Plentziaraino joan ziren. Kakarraldo taldearen kontra jokatu zuten. Partidua domeka eguerdian jokatu zuten, eta arrasatearrek partiduaren eguna

aldatzen ahalegindu baziren ere, ez zen posible izan.

Badirudi Arrasatekoendako domeka eguerdia ez dela partidua jokatzeko ordu batera egokia, orain arte jokatu-tako partidu txarrarena egin zuten-eta. Goiz joan behar izan zuten Bizkai aldera, Plentzia lekutan dago-eta.

Arrasatearrek Kakarraldo taldearen kontra ez zuten orain arteko mailarik erakutsi, partiduko lehenengo minutuetan ez, behintzat. Kakarraldok aurre hartu zuen markagailuan, eta Arrasatek, ezin ezer egin. Markagailuak 18-0 erakusten zuen, eta orduan etorri zen arrasatearren erreakzioa. Arrasatearrek ere hemezortzi puntu egin zituzten, eta badirudi bi taldeak ados jarri zirela, bi taldeetako inork ez zuten puntu gehiagorik egin.

Plentzian eskuratutako puntua baliotsua da, eta garrantzitsuena zera da: oraindik partidu bat bera ere galdu ez izana.



Joan den asteburuan ere irabazi egin zuen Kencik

X.U.

Kenci Arrasatek aurreko asteburuan ere irabazi egin zuen. Iker Zubiriaren mutilek 92-80 irabazi zioten Errioxako Calahorra taldeari. Argi dago irabaztea zer den ondo ikasi dutela arrasatearrek.

Joan den asteburuan, Iker Zubiriak, lehenengoz, taldeko jokalaria guztiak eskura izan zituen, eta hori taldearen jokoan eta emaitzan nabaritu zen. Errioxarrak gogor hasi ziren, eta aurre hartu zuten markagailuan. Arrasateko talde-

ak, baina, ez zuten kalerik egin, eta partidua eusten ahalegindu zen. Atsedendira iritsi zirenean berdinketa zen markagailuan (45-45). Bigarren zatian Kenci zer egin ondo zekiela kantxaratu zen, eta horri esker markagailuko alde handitu zuen. Talde osoa ibili zen ondo, baina partiduko protagonistak Gorka Kintana eta Jon Basurko izan ziren.

Denboraldiko hirugarren garaipena eskuratzeko arrasatearrek gogotik izerditu beharko dute, Padura taldea izango da-eta hurrengo kontrarioa; eta, gainera, kanpoan jokatu dute.

Babeslea

SPORTLAND
FORUM SHOPS

www.forumsport.com

KIROLA ZEURE ESKURA

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate

ESKUBALOIA

AGRk, gaizki jokatu arren, 24-26 irabazi zion Leitzaran taldeari

Bestetik, Arrasate Eskubaloi Taldeak bigarren zatian ondo jokatu zuen, baina 22-26 galdu zuen Urnietaren kontra

XABIER URZELAI

AGR taldeak etxean jokatu du oraingo asteburuan, Bidasoa taldearen kontra. Joan den asteburuan, partiduko gauza onena emaitza izan zen, Arrasateko jokalariek ez zuten eta benetako maila erakutsi.

Bidasoaren kontra maila hobea erakutsi beharko dute Bernardo Balerdiren mutilek. Bidasoa ez da punta-puntako taldea, baina haien defentsaren kontra jokatzeko ez da lan batere erraza. Bidasoak defentsa aurreratuarekin jokatzeko dute, eta baloi asko lapur ditzakete. Defentsa mota hori apurtzea lortzen badute, puntuak iturripen geratuko dira. Partida zapatuan jokatu dute, arra-

tsaldeko lauretan, Iturrieko kiroldegian.

BIGARREN TALDEA, KANPOAN

Joan den astean etxean jokatu eta gero, oraingo astean kanpoan jokatzeko tokatzen zaie Jesus Mari Herreroren mutilei. Joan den astean, lau goleko aldeatik galdu zuten. Lehenengo zatian ez ziren batere fin ibili, eta Urnietakoak zortzi goleko aldea eskuratu zuten aldageletara erretiratu aurretik. Bigarren zatian gauzak dezente aldatu ziren, eta arrasatearren erreakzioa etorri zen. Aldea hiru golera murriztu zuten, baina pase erraz batzuetan kale egin, eta Urnietak berriro egin zuen gora, eta partidua irabazi zuen. Oraingo asteburuan, Loiolaren kontra jokatu dute.



KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

Mondra - Mutriku

Erregionala. Zapatuan. 15.45. Atxabalpe.

SASKIBALOIA

Padura - Kenci Arrasate

Seniorrak. Domekan. 12:15. Arrigorriaga.

ERRUGBIA

Irun - Arrasate

Seniorrak. Zapatuan. 16:00. Irun.

ESKUBALOIA

AGR Arrasate - Bidasoa

Lehen seniorrak. Zapatuan. 18:00. Iturri.

Loiola - Arrasate

Bigarren seniorrak. Domekan. 11:00. Loiola.

EMAITZAK

FUTBOLA

Ondarroako Aurrera - Mondra. 1-7

SASKIBALOIA

Kenci Arrasate - Calahorra. 92-80

ERRUGBIA

Kakarraldo - Arrasate. 18-18

ESKUBALOIA

Leitzaran - AGR Arrasate. 24-26

Arrasate - Urnieta. 22-26

ELKARRIZKETA

ZIGOR JIMÉNEZ/ATLETA

"Donostiako Maratoian proba amaitzea eta gustura aritzea izango dira helburuak"

X.U.

Zigor Donostiako Maratoian izango den arrasatearretako bat da. Orain arte duatloietan eta triatloietan ikusi dugu, eta hainbat maratoi erdi egin eta gero, etzi, domekan, 42 kilometroko proban izango da.

Zelan bururatu zaizu maratoian parte hartzea?

Orain arte, hainbat maratoi erdi egin ditut, eta domekakoa beste proba bat gehiago izango da. Neure burua probatzeko beste proba bat.

Azken maratoi erdia Behobiakoa izan da; gustura han egindakoarekin?

Oso gustura ez. Ordubeta eta hogeita bost minututatik jaistea zen nire helburua, eta bi minutu gehiago egin nituen; hortaz, ezin pozik egon.

Orain arte, duatloietan eta triatloietan izan zara; maratoirako entrenamendu berezirik egin duzu?

Bai. Duatloietan edo triatloietan hainbat kirol egin behar dira: bizikletan ibili, igeri egin, korrikan egin... Maratoia prestatzeko korrika baino ez da egin behar, baina entrenamendu ezberdinak dira. Batzuetan, men-

dian ibili naiz korrika, eta beste batzuetan, inguruko errepideetan ibili naiz gora eta behera. Gehienez, 28 kilometroko entrenamendu saioak egin ditut, bi ordu eta erdi, gutxi gorabehera.

Inguru aproposak ditugu korrika egiteko?

Bai. Hainbat ibilbide egin ditut nik: Bergara aldera, Eskoriatza aldera, Aramaio aldera, Bedoñara, Tellamendi aldera...

42 kilometroan gauza asko pasatzen dira burutik.

Bai, denbora luzea dago buruari eragiteko. Bost orduko triatloiak egin izan ditut, eta askotan hori izaten da gaitzeta, buruarekin izaten den borroka hori. Horrelako probetan hori gaintzea izaten da garrantzitsuena.

Maratoia, lehena eta azkena, ala lasterketa amaieran esango duzu hori?

Normalean, horrelako erabakiak proba egin eta gero hartzen dira. Proba gustura egiten bada, baliteke errepikatzea, baina une txarrak pasatuz gero...

Zein da zure hurrengo helburua?

Datorren urtean Iron Man proba egitea da nire helburua. Triatloien barruan hori da proba luzeena, eta gogorrena. Oraindik ez dakit zein Iron Man egingo dudan, baina hori da helburua.



XABIER URZELAI

"Proba luzeetan buruarekin izaten den borroka gaintzea izaten da garrantzitsuena"

"Datorren urtean, Iron Man proba egin gura dut, baina oraindik ez dakit zein"

"Behobia-Donostia ez nuen oso ondo amaitu; espero baino minutu bi gehiago egin nituen"



XABIER URZELAI

Joan den egubakoitzean, Diarrio Vasco Pilota Txapelketako partiduak izan ziren Uarkapen.

PILOTA

Arrasateko pilotariak esku hutsik Gipuzkoako Klub Arteko Txapelketan

Joan den asteburuan jokatuak partidu guztiak galdu zituzten arrasatearrek

XABIER URZELAI

Arrasateko pilotariak ez dira fin ibili denboraldiko lehen txapelketan. Gipuzkoako Klub Arteko Txapelketako ligaxka amaitu da dagoeneko, eta arrasatearrek kanpoan geratu dira. Partidu batzuetan maila polita erakutsi dute, baina ez da nahiko izan hurrengo faserako sailkatzeko.

Pilotari mondragoetarrek ez zuten asteburu onik izan: izan ere, gazte mailan, eskuz banaka, Gozalo 22-7 galdu zuen Eskoriatzaren kontra; gazte mailan, bikoteka, Agirrek eta Zuazuak gutxiagatik

galdu zuten Billabonako pilotarien kontra (22-19); bigarren mailako seniorretan, berriz, Uribarrenek eta Zuazubiskarrek 22-16 galdu zuten Usurbilgo pilotarien kontra; eta, azkenik, lehen mailako seniorrek, Zugastik eta Lazkanok, 22-14 galdu zuten Intxaurrondoren kontra.

HURRENGO TXAPELKETAREN ZAIN

Arrasateko pilotariak Gipuzkoako Klub Arteko Txapelketatik kanpo daude. Hurrengo txapelketa Udaberri Txapelketa izango da, eta abenduan hasiko da txapelketa hori. Arrasatearrek txapelketa horretan oraingoan bai-


no hobeto ibiltzea espero dute.

DV TXAPELKETA UARKAPEN

Dagoeneko jokoan da Diarrio Vasco Txapelketa, eta joan den egubakoitzean, partidu bi izan ziren ikusgai Uarkapen. Gazte mailan Garziandiak eta Iruridak 22-16 galdu zuten Azagirrerren eta Iurretaren kontra. Partidu parekatua izan zen, pilotakada askokoa.

Horren ondoren, amateurren partidua izan zen ikusgai: Martinez de Irujok eta Zabalak 22-17 irabazi zieten Asestari eta Báezi. Ikusle gutxi izan zen, baina herriko pilotariak jokatzeko dutenean baino gehiago bai, behintzat.

FOTOKIROLA



Arrasatearrek arku tiroketan

Zapatuan, Musakola kiroldegia arku tiroketa zaleen topaleku bilakatu zen. 30 lagun inguruk parte hartu zuten VI. Arku Tiroketa Txapelketan, eta tartean arrasatearrek ere izan ziren.

Zapatukoa Arku Tiroketa Txapelketako bigarren jardunaldia izan zen. Txapelketan hiru modalitate izan ziren: umeen arku tiroketa, modalitate olinpikoa eta polea-arkua. Hurrengo proba abenduaren 15ean izango dute. /X.U.

ATLETISMOA

Markel Blanco eta Marifran Alonso bikain ibili ziren Irungo Hiria krosetan

Joan den asteburuan jokatu zen Irungo Hiria kroseta, eta hainbat mondragoetarrek parte hartu zuten lasterketan. Infantil mailakoek bi mila metroko lasterketa izan zuten, eta azkarrena Markel Blanco arrasatearra izan zen. Lehenengo aldia da hamahiru urteko gazte horrek horrelako lasterketa bat irabazten duena, baina, seguru asko, ez da azkena izango, sekulako maila dauka-eta.

Gazte mailan, berriz, Endika Donai hamazortzigarren postuan iritsi zen helmugara. 5.400 metroetako proban hartu zuen esku 15 urteko arrasatearrek.

Bikain ibili zirenak Arrasateko beteranoak izan ziren; oraingoan, bi emakume ditugu protagonista: batetik, Marifran Alonso, Behobia-Donostian, emakumeetan, arrasatear azkarrena izan zen, eta Irungo krosetan laugarren geratu zen; eta, bestetik, Maria Jose Gilek ere lan polita egin zuen, zortzigarren izan zen-eta.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

A MULTZOA

Saukelu Scream - Goma2	2-3
Rayo Aldeano - Maldifa's	3-3
Abocajarro - Betrayar	5-3
Lasagabaster - Makanaki	3-4
Iriztu taberna - Al Kaeda	4-2
NS/NC - Komando Alpagat	3-8
You Know! - Etxerat	7-4

B MULTZOA

El Ekipo A - Saloga	6-4
Dribling.es.vg - Billy & The cowboys	3-1
Fraguel Gol - Koka Juniors	0-5
Estu Ta Larri - Bikain Akademia	2-3
Whiskeria - AC Surcos	0-14
Fuxxion - Etxinai!	2-6
Aurrera Bolie - AT Celaya	3-3

PARTIDUAK

AZAROA 16, ZAPATUA. EPAILEAK

08:50: R. Aldeano - Makanaki.	K. Alpagat
10:00: Lasagabaster - K. Alpagat.	Makanaki
11:00: AT Celaya - Whiskeria.	Lasagabaster
12:00: Fuxxion - Aurrera Bolie.	Whiskeria
13:00: AC Surcos - Fraguel Gol.	Aur. Bolie
14:00: El Ekipo A - Billy & The...	Fraguel Gol
15:00: Abocajarro - Al Kaeda.	EI
Ekipo A	
16:00: Saukelu Scream - Goma2.	You Know
17:00: Abocajarro - Betrayar.	Goma2
18:00: Dribling - Billy & The...	Betrayar
19:00: AC Surcos - Whiskeria.	Billy & The...

AZAROA 17, DOMEKA

10:50: Iriztu Tab - Al Kaeda.	Makanaki
12:00: Lasagabaster - Makanaki.	Al Kaeda
13:00: El Ekipo A - Saloga.	Lasagabaster

SAILKAPENA

A MULTZOA

	P	J
1. Makanaki	6	4
2. Saukelu Scream	5	4
3. You Know!	5	4
4. Betrayar	5	4
5. Iriztu Taberna	5	4
6. Goma-2	5	4
7. Etxerat	4	4
8. NS/NC	4	4
9. Komando Alpagat	3	4
10. Lasagabaster	3	4
11. Al Kaeda	3	4
12. Rayo Aldeano	3	4
13. Maldifa's	3	4
14. Abocajarro	2	4

B MULTZOA

	P	J
1. Dribling.es.vg	8	2
2. AC Surcos	6	2
3. Koka Juniors	6	2
4. El Ekipo A	6	2
5. Aurrera Bolie	5	2
6. Fraguel Gol	4	2
7. AT Celaya	4	2
8. Etxinai!	4	2
9. Fuxxion	4	2
10. Bikain Akademia	3	2
11. Saloga	2	2
12. Billy & The Cowboys	2	2
13. Estu Ta Larri	0	2
14. Whiskeria	0	2

ORAINGOAN, JOKO GARBIA NAGUSI

BEHINGOZ EZ DA ZIGORRIK IZANGO

Badirudi orain arte ezarri diren zigorrek eragina izan dutela, joan den astean ez zen-eta istilu aipagarriak izan. Horren harira, askotan, jokariak baino gehiago, ikusleak izaten dira neurria ematen ez dutenak. Txapelketarekin zerikusirik ez daukanari ezin zaio ezer egin, baina publikoko pertsona hori Zaldibarko Txapelketako jokalaria bada, antolakuntzak neurriak har ditzake. Badirudi oraingo astean horrelako zigor bat jartzeko proposamenen bat edo beste izan dela. Zigor hori jartzeko, baina, behin baino gehiagotan errepikatu den gertaera izan beharko litzateke, ikusleen artean dauden jokariak zigortzen hastea oso erabaki arriskutsua izan daiteke-eta. Horretan hasi beharrean, kantxan gertatzen dena zigortzearekin nahiko lan dute, oraingoz, behintzat.

ZEINGEHIAKOKA PAREKATUAK

Joan den astean, emaitza nahiko parekatuak izan ziren Zaldibarren. AC Surcos taldeak hamalau gol egin zizkion Whiskeria taldeari, eta Koka Juniors taldeak ere erraz irabazi zuen. Gainerako partiduetan indarrak nahiko parekatuta egon ziren.


**Eros ezazu
Ibai-Arteko dendetan
eta irabaz ezazu
600 euroko sari berezia!**

Datorren egubakoitzean, hilak 29,
Ibai-artek azaroko 600 euroak
zozketatuko ditu.

Ikus ezazu zuzenean GOITBn,
arratsaldeko albistegien aurretik.



**eta gainera...
abenduan 3.000€-ko
sari erraldoia**



Ate + leihoak



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2

BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia

Tel.: 943 79 24 12 eta 943 79 97 95

ARRASATE



Salterain

PVC-zko ate eta
leihoez gain:
moketak,
zoru arinak,
kortxoak,
Louverdrape
kortinak,
Kortinoba, testila...



XABI URZELAI

Irudian, Arrasateko Margo Taldeko partaideetako batzuk, Harresi aretoan, erakusketaren aurkezpenean.

Herriko margolarien lanak ikusgai Harresi aretoan, hil bukaerara arte

ENEKO AZKARATE

Joan den egubakoitzean zabaldu zuten, Harresi aretoan, Arrasateko Margo Taldeak antolatutako pintura erakusketak. Taldeko 24 laguneko margolariek daude ikusgai, hil bukaerara arte.

Urteroko hitzorduari eutsiz, aurturaren erdian daude Arrasateko margolarien lanak Harresi aretoan. Joan den egubakoitzean inauguratu zuten erakusketa, eta han elkartu ziren taldeko kideak eta herriko beste hainbat artezale. Luncha eta guzti izan zen. Eta inaugurazio ekitaldian izan ez zirenek datorren egubakoitzera arte, azaroaren 30era arte, izango dute aukera erakusketa ikusteko. Ordutegia hau da: astelehenean egubakoitzera, 18:00etatik 20:00etara; zapatuetan eta domeketan, bestalde, goizez ere izango da zabalik, 12:00etatik 14:00etara, hain justu ere.

OLIOA ETA FIGURATIBOA NAGUSI

Artearen azken joerei erreparatu, esan genezake Arrasate Margo Taldeak antolatu duen erakusketa ez dela oso berritzailea: materialak ohikoak dira, olioak dira nagusi; neurriak ere estandar samarrak dira; bestalde, figuratiboa da nagusi, hau da, ia ez dago lan abstrakturik. Hori esatea, baina, ez da Harresi aretoan aurki ditzakegun lanen maila gutxiesten. Han aurki daitezkeenaren gaineko datu batzuk ematea baino ez da asmoa. Hara joa-

*Paisaiak, natura
hilak, biluzi bat...
Kolare biziko lan
figuratiboak dira
nagusi*

*Erakusketako
artista guztiak
mondragoetarrak
izan arren, nork
bere estiloa dauka*

ten direnek paisaiak, natura hilak, biluzi bat... ikusteko aukera izango dute, gehienak kolore bizikoak; marrazki abstraktu bat ere bai, grabatu bat... Gaiei dago kienez, itsasoko, mendiko edo kaleko paisaiak; loreak; zezenketa islatzen duen margolan bat...

Estilo aldetik, bestalde, oso ugariak. Artista guztiak arrasatearrak eta talde berekoak izan arren, ezin dezakegu esan margolariek estilo edo eskola berekoak direnik; izan ere, nork bere erara margotzen du.

IKUSI..., ETA EROSI?

Erakusketa ikustera joateko arrazoi asko egon daitezke. Zer ikusi badago, behinik behin. Baina iku-

si eta kalera? Bueno, aukera bat da, eta gehienek egiten dutena horixe da, gainera. Baina margolariek erosi eta etxera eroateko aukera ere badago: "Jeneralean ez digute erosten, baina salgai ditugu. Interesa duenak egileekin harremanetan jartzearekin nahikoa dauka", esan digu taldeko kide Kontxita Aranek.

URTEAN, ERAKUSKETA BAKARRA

Egun hauetan ikusgai dagoen erakusketa hori da Arrasate Margo Taldeak urtean antolatzen duen bakarra. Taldeko hainbat kidek egin ohi dute erakusketa urtean barrena, baina bakarka. Taldeka egiten duten bakarra hori da. Urtero sasoi berean egiten dute, Gabonetatik gertu. Hogeita bost kidek osatzen dute Arrasate Margo Taldea. Mondragoetarrak dira denak, pinturazaleak, hau da, ez dago ogibidez margolari denik. Gehienak edadetuak dira, baina gazteak ere badira. Zaharrenak 70 urte inguru ditu eta gazteenak, 25 bat.

OSPITALE ATZEALDEAN

Arrasate Margo Taldeak Debagoinen eskualde ospitalearen atzean dauden lantegi zahar batzuetan egokitutako lokaletan dauka egoitza. Herriko txistulari eta dultzaina jotzaileek ere han dute entseguetarako tokia: "Gustura gaude, Arrasateko Udalak lokal egokia utzi digu pintatzeko", esan digu Kontxita Aranek. Astearen behin, gainera, pintura eskolak ematen dizkie Luis Laskurain pintore bergararrak.

Kike Amonarriz eta Asisko Urmeneta Monterronen

IKER BARANDIARAN

Datorren eguaztenean, azaroaren 27an, Asisko Urmeneta eta Kike Amonarriz izango dira Monterronen, 19:00etan. Hain zuzen ere, *Euskaraz dibertitzeko manerak* azalduko dituzte. Kikek eta Asiskok ez dute emanaldirik egingo, berbaldia baizik; edo, eurek sarri definitu izan duten moduan, *hitzaldi-show*-a egingo dute.

Euskaraz dibertitzeko manerak Asiskok, Kikek eta Antton Olariagak sortu zuten, baina Antton ez da Arrasaten izango. Berbaldi horren ardatza hizkun-

tza bera izango da. Hain zuzen ere, hizkuntzaren alderdi jostari, alai, ezkutu eta harrigarria erakutsiko dute. Edo beste modu baten esanda, euskarak berak dibertitzeko, barre egiteko, ligatzeko, iraintzeko eta trufatzeko dituen ahalmenak erakutsiko dizkigute.

Hizlariak zeintzuk izango diren kontuan hartuta, umorerik ez da falta izango, jakina, baina, horrez gain, euskararen eta euskararen erabileraren gainean adituak eta, neurri baten, sortzaileak ere badira; izan ere, bikote horrek euskarazko argotaren alde egin gura du, eta eguaztenteiko berbaldian azalduko digute hori.



Corazon de Encinako egoitzaren urteurrena

IKER BARANDIARAN

Corazon de Encina elkarte extremadurarrak San Andresen duen egoitzaren bederatzigarren urteurrena ospatu berri du. Egubakoitzetik domeka goizaldera bitarte hainbat ekitaldi egin dituzte.

Corazon de Encina elkarte extremadurarrak San Andresen daukan egoitzaren bederatzigarren urteurrena ospatu du. Hori dela eta, hainbat ekitaldi egin ditu elkarteak. Joan den egubakoitzean hasi eta domeka goizaldera bitarte ez dute atsedenik izan.

MUSIKA ETA JANARIA, ERUZ

Egubakoitz arratsaldean, poesia eta idazkera lehiaketak izan zituzten. Horien ondoren, elkarteeko gazte taldeak antolatutako beste joko eta lehiaketa batzuk izan ziren. Eta gazteen ekitaldiekin amaitzeko, txokolate-jana egin zuten.

20:00etan, Extremaduraren gaineko bideoa eman zuten, eta horren ondoren, afaltzeko atselehaldia egin zuten. Afalostean, 23:00etan, Gabino Carmona Gómez abeslariak Cante jondo emanaldia egin zuen. Badajozko Campanario herriko abeslari horrek Al Andalus elkarteak anto-

latutako Cante Flamenko Lehiaketan ere parte hartu zuen, eta hori argi geratu zen Gabinok egin zuen emanaldi biribilean. Cante jondoaren ostean, eta Corazon de Encina elkarteak atsedenik hartzen ez duten erakusle, elkarteeko talde batek *playback* jaialdia egin zuen. Ia bi orduz gaur egungo kantu mordo bat eskaini zituzten, mozerro eta guzti, eta ikusleek barre ederrak egin zituzten.

BRINDISA ETA BABA-JANA

Egubakoitzean oso berandu bukatu bazuten ere, zapatu eguerdian Extremadurako diapositibak ikusi zituzten, eta ordu batean, ohorezko topa egin zuten, Esparragosako ardo goxoarekin. 14:30ean, ehun eta hogeita lagun batu ziren elkarteak antolatutako baba-janean, eta bazkalostean, 16:30ean, tute eta cuatrola kartajokoan finalak jokatu zituzten. Irabazleek Corazon de Encinako trofeoak jaso zituzten.

Gerorako, 19:00etan, Gasteizko 11 Varas rumba taldeak gazteendako kontzertua eskaini zuen. Bati baino gehiagori Estopa gogora ekarri zion Gasteizko taldeak. Asteburua ondo bukatzeko, 23:30ean, Gardokiren taldeak dantzaldia egin zuen, eta jaiak luze jo zuten.

E, TXO!

GUREGAIK/ SEXOLOGIA

Sexu kontuen gaineko informazioa ematen duen zerbitzua

AINTZANE IRIZAR

Sexu kontuen gaineko informazioa eta aholkularitza eskaintzen dituen zerbitzua dago Arrasaten. Sexologia Zerbitzuan sexologo baten laguntza jaso dezakezue, zuen kezka eta zalantzak argitzeko.

1986an zabaldu zuten Arrasaten Sexologia Zerbitzua, emakume taldeek eta Gazteria batzordeak bultzatuta. Biteri kaleko Garibai etxean dago, Gazte Informazio Bulegoarekin batera. Batez ere gazteendako zerbitzu moduan zabaldu zuten arren, adin guztietako jendearendako ditu zabalik ateak. Bestalde, nahiz eta, berez, arrasatearrei zuzendutako zerbitzua izan, ibarreko gaine-

Urtarrietik aurrera, Sexologia zerbitzuak bere ordutegia handitu egingo duafg

rako herrietan horrelako zerbitzurik ez dagoenez, ibar osoari eskaintzen diote zerbitzua.

Bulegora joaten diren gehienak 15 eta 35 urte bitartekoak izaten dira. Informazio zerbitzuaz gain, aholkularitza zerbitzua ere eskaintzen dute sexologoek. Zabalik egoten da astelehenetan,



XABI URZELAI

Sexologia Zerbitzua Gazte Bulegoaren eraikin berean dago.

17:00etatik 20:00etara eta eguenetan, 15:00etatik 18:00etara. Telefonoz (943 79 80 10) edo posta elektronikoki bidez egin ditzakezue kontsultak (sexologiazerbitzua@arrasate-mondragon.net).

OKENDO KALEKO LUDOTEKA ZABALDU DUTE!

Txatxilipurdik jakinarazi digu Okendo kaleko ludotekan zeuden itoginak konpondu dituztela, eta joan den astelehena ezkerro (azaroak 18) ludoteka zabalik dagoela. Txatxilipurdik barkamenak eskatu gura dizkie umeei eta gurasoei, hainbat egunean ludoteka itxita edukitzeagatik. Dagoeneko zabalik dago, 17:00etatik 20:00etara.

'LARUNBLAI'-KO IRTEERA GASTEIZKO TXIKIPARKERA

Txatxilipurdik Gasteizko Txikiparkera irteera antolatu du abenduaren 14an. *Larunblai* lelopean. 10:00etan irtengo dira, Arrasatetik, eta 14:00etan bueltan egongo dira. Izena eman dezakezue Okendoko edo Santa Marinako ludoteketan edo Txatxilipurdiren bulegoan, abenduaren 5a aurretik. Anai-arrebek eta bazkideek bederatzi euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek, hamar euro.

LUDOTEKA IBILTARIA

Bihar, zapatua, Ludoteka Ibiltaria izango da Bedoñabe eraikinean, San Andresko Herri Eskolan, 11:00etatik 13:30era, auzoko umeek jolas egin dezaten.

GAZTETXEKO FANTZINEA

Gaztetzeko fantzinea bide onean dōa. Hala jakinarazi digute gaztetzeko batzarrekoek. Laster izango dugu horren berri zabalagoa.

GAZTETXEAREN GAINEKO MINTEGIA GARAION

Azaroaren 29an eta 30ean, gaztetzeko batzarrekoak Garaiora joango dira, gaztetzeko berriaren gainean hausnarketa egitera. Interesa baduzu, agertu gaur, egubakoitza, 22:30ean egingo duten batzarrera.

LOTSABARIK/ Maria Ruiz de Azua

"Abestea nire umetako ametsa zen"

IKER BARANDIARAN

Maria Ruiz de Azuak txikitan abeslari izan gura zuen, baina dagoeneko horiek 'umetako ametsak' direla-eta, iritzia aldatu du. Ez du ezkontzeko asmorik, eta hiri handi baten bizi izango litzateke.

• Txikitan, zer izan gura zenuen?

Oso txikitatik abeslari izan gura nuen. Dagoeneko bi urterekin mikrofonoekin osatutako muntaia neukan etxean. Gero, aspertu egin nintzen, eta ez dut abesten. Orain, Enpresa Zientziak ikasteko asmoa daukat.

• Zelan ikusten duzu zeure

burua hemendik 20 urtera?

Lanean, neska-zahar edo, behintzat, ezkondu barik, eta hiri baten bizi izaten. Arrasaten mundu guztiak daki zure berri; ez da oso eroso. Zenbat eta hiri handiagoan bizi, orduan eta hobeto.

• Zein da, zeure iritzi, adin ideala?

Hamazazpi urte, askatasuna daukazulako eta, berriz, ardura gutxi dituzulako.

• Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Lagunei eta ikasketei.

• Zerk arduratzen zaitu gehien?

Barregarri geratzeak.

• Zerk ematen dizu lotsa?

Elkarrizketa honek eta horre-

lako gauzek. Oso lotsatia naiz.

• Zure alde on bat? Eta alde txarren bat?

Alaia naiz, eta gehienetan egia esaten dut, baina, bestalde, berba larregi egiten dut eta jenio txarrekoa naiz.

• Zure gorputzeko atalik gustukoena?

Ilea eta sudurra. Sudur polita daukat eta ilea, beltzarana.

• Jendeari, zeri botatzen diozu begirada lehenengo?

Fisikoari eta, batez ere, aurpegiari. Gero, hura zelakoa den.

• Arrasaten ligatzen da?

Ez. Mutilak neskak baino lotsatiagoak dira eta, gainera, norbaitekin ligatuz gero, Arrasate guztiak horren berri izaten du.



ADINA: 14 urte • IKASKETAK: DBHko 3. maila • ZALETASUNAK: Saskibaloian jokatzea, musika entzutea eta lagunekin irtetea
LIBURU BAT: 'El señor de los anillos' • FILM BAT: 'Matrix' • MUSIKA TALDEA: Linkin Park • KIROL TALDEA: Tau Baskonia eta Reala

HIES BERRI

Tel.: 943 79 26 99

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikari erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82



Txitxinpe


Berezitasunak

Kazuelatxoak

Otarteko hotz eta beroak

Arrasate pasealekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

PUB HAIZEA



BEHEKODENDATIK

Laura Pérez

SUGAR ERROPA DENDAKUE

XABIER URZELAI

Laurak Informatika ikasi euen, Eskola Profesionalien, eta urtebete lanien ibilli eta gero lanbidie aldatu erabaki euen. Seguruena, kaleko saltzaille gaztiena izengo da. Erropa dendie zabalketie idea zoro samarra izen zala esaten dau, baiñe gustora dabil. Kale-kalien dauketzue, Ferreriasen.

Amets bat?

Dendie ondo juetie.

Eta amets txar bat?

Dendie txarto juetie.

Egin dozun azken biajie?

Udan, Lleidara.

Txartel horixe, zeñei?

Enbidixiaz bizi danari.

Eta gorrixen?

Errespetorik ez daukonari.

Pelikula bat? Liburu bat?

Musika talde bat?

Forrest Gump / Misteriozko liburuek gustetan jat / Pop-rocka gustetan jat; adibidez, Woman reko-pilatorixue.

Drogak legalizauko zittukie?

Bai.

Eta prostituziñue?

Hori be bai.

Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Tabernetako txikiteue.

Etxeko zapatillak ala zapa-tak?

Etxeko zapatillak.

Ze gustetan jatzu Mondra-guetik?

Herrixen egoten dan ambientie; jentie, orokorrien.

Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Aparkalekuen arazue.

Eta lehendakari izengo bazi-tze?

Ba, aparkalekuen arazue; izen be, leku danetan arazo bera daukogu.


Ezagutu dozun pertsona inte-resante bat?

Ez jat iñor be okurriduten.

Eta ezagutu nahiko zeunke-ena?

Ez neuke jakingo esaten.

Tranpan ibilttekotan nor-



X.U.

“Dendie leku onien dago, baiñe astelehen goixa inguruek garbiketan pasetan dot”

baittekin, zeñekin?

Ez naz bape tranposue.

Bizio bat?

Erropak.

Mendi bat?

Lleidako inguruek asko gustau jat.

Ze dauketzu sobran?

Ezer be ez.

Eta faltan?

Denpora librie.

Bizi izetera hiri batera juete-kotan, nora?

Donostiara.

Telebisiñoko programa bat?

Telebisiñue oso gutxi ikusten dot.

Eta irratikue?

Musika asko entzuten dot, bai-

“Mondraguen eta Bergaran ibilli nitzen begira, eta Mondraguen jarri dot dendie azkenien”

ñe irratixe gutxi.

Zertan gastauko zeunke dirue?

Biaje bat egingo neuke gusto-ra.

Hasierak gatzak izeten ei die. Bai, baiñe oingo, gauzak oso ondo doiez.

Denda bat jarteko, Mondra-guen edo Bergaran hobeto?

Bixetan ibilli nitzen begira, baiñe Mondraguen hobeto.

Lekue, behintzet, ona da.

Bai, baiñe astelehen goixa ingu-ruek garbiketan pasetan dot.

Nobixuek oin badauko erro-pak nun erosi.

Bai, oin, erropa danak hamen erosten dittu.

NIREBIDAIAHURA / Joseba Okina

Venezuelara / 2002an, udan

Joseba beste hiru lagunekin batera izan da Venezuelan, udan. Oporretan elkarrekin joaten dira normalean. Hasiara baten Ekuadorrera joateko asmoa zeukatzen, baina azkenean, Venezuelarako bidea hartu zuten, askoz ere merkeagoa zen-eta.

Hilabete egin zuten Venezuelan, eta era guztietako garraiobideak erabili zituzten Venezuela ezagutzeko: turismo-hegazkinak, jeep-ak, kanoak, txalupak...

Bidaiako lehenengo egunak Caracasen egin zituzten. Hiriburuan ez zuten denbora luzerik egin. Egun bi inguru izan ziren; nahikoa, erdialdea ikusi eta Euskal etxea bisitatzeko. Hasierako asmoa hegoalderantz joatea zen, baina oraindik oihanera joateko txertoa hartu barik zeukatenez, iparralderantz joateko erabakia hartu zuten. Hiriburutik Chichirivichera joan ziren, hondartzara. Egun bi egin zituzten hondartzan, eta segidan mendebalderantz jo zuten, Meridara. Meridan, besteak beste, bost eguneko mendi zeharkaldia egin zuten. Pico Bolibar inguruan ibili ziren, baina mendi tontorrera igozteko eskalatu egin behar zen, eta beste baterako utzi zuten. Ederto pasatu zuten, nahiz eta mendi zeharkaldian erosotasun handirik ez izan.

Los Llanosera joateko asmoa ere bazuten, baina uholdeak zirela-eta ez ei zen oso leku gomendagarria. Meridan hegazkina hartu eta hegoaldera jo zuten, Ciudad Bolibarrera. Han, Orinoko ibai bazterretan ibili ziren, eta, besteak beste, Salto del Angel ur-jauzian izan ziren. Txalupa txikietan ibili ziren gora eta behera, eta hango animaliak ikustea zuten helburuetako bat. Baina ez zuten zorte handirik izan: krokodiloren bat eta txori mota batzuk ikusi zituzten, askoz gehiagorik ez. Ciudad Bolibartik Caracasa aldera jo zuten, azken egunak hondartzan igarotzeko asmoz. Joseba gustura bueltatuko litzateke Hego Amerikara, baina ez leku berera: “Leku asko daude ikusteko; hurrengoan beste nonbaitera joango nintzateke”.

XABIER URZELAI



Joseba, lagunekin batera, ur-jauzi azpian.

“Leku asko daude; beste nonbaitera joango nintzateke”

INSTITUTUKO IKASLE IZANDAKOENDAKO DEIA

Arrasateko Institutuak 25 urte bete ditu.

Hori ospatzeko, ikasle izandakoen eta irakasleen bazkaria antolatu dugu, azaroaren 30ean, 14,30ean, Uarkape jatetxean.

Zatoz orotzapenez betetako uneak bizi izatera! Eman izena! Ondoren ematen dizkizugun kontu-korronteetako baten 22 euro sartu besterik ez duzu, azaroaren 26a baino lehen, izen-abizenak adierazita:

Euskadiko Kutxa: 30350001590011051860 / Kutxa: 21010097410123940686

ZAHARREN ETXETIK



IKER BARANDIARAN

Zahartzaroko demenziak eta Alzheimer gaitza bera ere aspaldian pil-pilean dauden gaiak dira.

Zahartzaroko demenziak sendatzen laguntzeko ikastaroa antolatu dute

ENKOA AZKARATE

Alzheimerra edo zahartzaroko dementzia duten gaixoak zaintzen dituztenendako ikastaroa antolatu du Hirugarren Adineko Institutu Komunitarioak (ICTE). Azaroaren 26an eta 28an eta abenduaren 2an, 3an eta 4an izango dira ikastaroak, Saiolaneko eraikinean, lehengo Cerrajeran. 15 ordu izango dira, guztira, egunean hiru ordu, 15:00etatik 18:00etara. Alzheimer gaixoak eta zahartzaroko dementzia dutenak zaintzen ibiltzen direnei zuzenduta dago ikastaroa: "Batez ere, ikasle eta profesionalei, horiek dituzten ikastaro hauetan parte hartzeko asti luzeen dutenak, baina baita gaixo hauen senitartekoei ere", Estibaliz Andrio ICTEko mediku gerontologoaren esanetan. Hogeita bost bat lagunendako lekua dago.

Alzheimer gaixotasunaren sendagaiez ari garenean, botikaz edo terapia bigunez ari gara. Gaur egun, baina, ez dago alzheimerra osatzeko botikarik. Horregatik,

oso garrantzitsua da gaixoei terapia egokiak eskaintzea: "Errehabilitazioa eta estimulazioa ezinbestekoak dira gaixotasun hori dutenei laguntza eskaintze aldera", diosku. Hortaz, psikogeriatrian gaur egun erabiltzen diren programen gaineko azalpenak emango dituzte ikastaroan, bai

ta errehabilitazio eta estimulazio kognitiboan erabiltzen diren tekniken gainekoak ere, edo terapia okupazionalaren gainekoak... Eguneko zentroetan edo etxean gaixoekin erabil daitezkeen programak eta jarduerak ere izango dituzte aztergai ikastaroan. Estibalizen esanetan, errehabilitazio eta estimulazio teknikak oso garatuak daude gaur egun, eta horiek erakustea oso inportantea da.

Geroago eta gaixo gehiago?

Alzheimerra duten gaixo gehiago dagoela gaur egun lehen baino?:
"Bueno, gaur egun, gaixotasun horien gainean informazio zabalagoa dago eta, horregatik, kasu gehiago diagnostikatzen dira. Bestalde, bizi itzaropena handiagoa da gaur egun; horrek esan gura du errazagoa dela gaitz hori ugaritzea", diosku Estibaliz Andrio medikuak.

MEDE HONETAKO GAITZA

Sarritan esan ohi da alzheimerra, batez ere, baita zahartzaroko beste dementzia batzuk ere mende honetako gaitzak direla. Gaixoei eurek baino gehiago, haien familiakoek jasaten dituzte gaitzaren ondorioak. Gaixoei etengabeko zaintza eskatzen dute, eta gaur egun geroago eta espezialista eta zaintzaile gehiago badago ere, "ditugunak baino askoz ere baliabide eta eguneko zentro gehiago behar ditugu", Estibaliz Andrioren iritziz. Gure ibarrean, Arrasaten, Bergaran eta Oñatin daude eguneko zentroak; Elgetan ere zabaltzeko asmoa dute.

LABUR

Uribarri zaharren elkartekoak abenduari begira ekitaldi mordo antolatzen dabilta

Uribarri zaharren elkartekoak antolakuntza lanetan harrapatu ditugu. Izan ere, abenduari begira ekitaldi mordo prestatzen dabilta. Besteak beste, Santa Luzia Egunean dantzaldia izango dute; Santamasetan txistorra-jana egingo dute; eta aurten, Bilbora joan beharrean, Donostiako Santamas Azoka Eguna ikustera joango dira. Datozen egunotan zehaztasun handiagoak emango dizkizuegu.

Neguari aurre egiteko, hainbat ekitaldi antolatu dituzte Musakolako elkarteak

Urtero moduan, Musakolako zaharren elkarteak abendurako hainbat ekitaldi prestatu dituzte. Besteak beste, abenduaren hasieran, briska, mus eta tute txapelketak jokatu dituzte elkarteak. Horrez gain, Santamasetan ohiko txistorra-jana egingo dute, eta Musakolako hirurogeita hamabost urtetik gorakoak omendu egingo dituzte. Hori guztia antolatzen izango dute nahiko lan!

ZAHARREN AHOTIK

Maria Rodríguez

ERRETIRATUA

Maria Rodríguez 1940an jaio zen, Salamancan. Ezkontza baten bere senarra izango zena ezagutu, eta Arrasatera etorri zen bizi izatera.



Salamancan jaio zinen. Zela-koa zen zure bizimodua han?

1940. urteko ekainaren 24an jaio nintzen, Salamancan, hiriburuan, eta hamasei urte bete nituen arte Salamancako La Merced Eskolan ikasten ibili nintzen. Ikasle on samarra nintzen, eta gurasek beste ikasketa batzuk egitera animatu ninduten, baina nik jantzigintza ikasi gura nuen. Lanbide hori ikasi, josten hasi nintzen eta lan mordo egin nituen. 1966an, bestalde, ezkontza baten senarra izango zena ezagutu nuen. Severino Granados da hura; Valladolideko da hura, baina ezagutu nuenerako Arrasaten lanean zebilen.

Eta orduan, zeu ere Arrasatera etorri zinen?

Bai, hala da. Severinok Arrasaten lana zuen, eta nik ere harengana jo nuen. Salamanca uzteak eta familiaren-

gandik aldentzeak pena handia eman zidan, eta negar asko egin nuen. 1968an, senarrarekin Arrasatera etorri nintzen, Udalpe kalean etxea hartu genuen eta han bizi gara ordutik hona.

Eta zer moduz bizi zara Arrasaten?

Ohitu naiz. Seme-alaba bi ditut, eta urte dezente daramatzaguru hemen. Senarrak Amaten eta Fagorren lan egin zuen, baina dagoeneko erretiratuta dago. Oraindik ere jostea oso gustuko dut. Horrez gain, azkeneko lau urteetan, arratsalde batzuetan, Uribarriko egoitzara jotzen dut.

arbolapeta

arrasate

psinke

Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Tbilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Señalizazioak
- Lonak
- Erliebeldun hizkiak

Gambrinus garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

Hilbera kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE
Tel.: 943 79 22 70



ARRASATE
Jone Elortondo
Azaroaren 19an, 6 urte.
Zorionak! Etxekoak eta
aiton-amonak.



ARRASATE
Josune Mateos
Azaroaren 22an, 5 urte.
Zorionak! Gurasoak eta
amona.



ARRASATE
Lorea Otadui
Azaroaren 16an, 6 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Jon González
Azaroaren 25ean, 3 urte.
Zorionak! Dosi eta Elena.



ARRASATE
Ioritz Gutiérrez
Azaroaren 25ean, 4 urte.
Zorionak! Familiaren par-
tetik.



ARRASATE
Julen Aranguren
Azaroaren 24an, 29 urte.
Zorionak! Goienako lagu-
nak.



ARRASATE
Eugenio García
Azaroaren 21ean, urtebe-
tetzea. Zorionak eta urte
askotarako! Etxekoak.



ARRASATE
Lur Puente
Azaroaren 17an, 7 urte.
Zorionak, denon partetik!



ARRASATE
Lara García
Azaroaren 25ean, 1 urte.
Zorionak! Maite zaitugu-
nok.




ARRASATE
Amaia Zubillaga
Azaroaren 18an, 19 urte.
Zorionak, Amaia!



ARRASATE
Iraitz Azkargorta
Azaroaren 22an, 20 urte.
Zorionak! Lehengusuak.



ARRASATE
Ane Zubizarreta
Azaroaren 26an, 6 urte.
Zorionak, potxola! Etxe-
koak.



ARRASATE
Ander Beitialarriñoitia
Azaroaren 24an, 3 urte.
Zorionak! Arrasateko etxe-
koen partetik.



ARRASATE
Eneritz Atxaga
Azaroaren 18an, 26 urte.
Zorionak! Lehengusuak.



ARRASATE
Feli Castillo
Azaroaren 22an, urtebe-
tetzea. Zorionak, Felitsu!
Etxekoak.



ARRASATE
Zuriñe V. de Mendizabal
Azaroaren 20an, 21 urte.
Zorionak, koadrilakoen par-
tetik!



ARRASATE
Maider Arriaran
Azaroaren 18an, 21 urte.
Zorionak, koadrilakoen
partetik!



ARRASATE
Ekain Garin
Azaroaren 24an, 22 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Ane Errarte
Azaroaren 23an, 7 urte.
Zorionak! Etxekoak.

Adi!

Argazkiak emateko lekua:
Arrasate:
ARRASATE PRESS
Otalora Lizentziaduna 31.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ARRASATE PRESSen bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaiozu ezusteko ederra! **Doan!**


*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra ARRASATE PRESSen agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

EZETZASMATU



XABIER URZELAI

Zein zerbitzu eskaintzen dute horma horren atzean?
Eta non dago etxe hori?



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA:

IZEN-DEITURAK.....

TELEFONOA

Ekarri txartela **EGUAZTEN**
EGUERDIRAKO ARRASATE PRESSERA!

Delfin langostinoak
kiloko 21/30

10,37 € 1.725 pta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

MARIA AZKARATErendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Maria!
Galderen erantzun zuzenak:
Zerrajera kalea.

ARRASATEKOHISTORIA

Esteban de Garibai
mondragoetarra (I)

ION ANDER RAMOS

Esteban de Garibai Zamalloa Arrasaten jaio zen, 1533ko martxoaren 9an. 1945ean, eraiki berri zen Oñatiko Unibertsitatean hasi zen ikasten. Ikasketa guztiak, baina, ez zituen Oñatin egin, Gasteizen eta Ozkabarten (Santo Domingo de la Calzada) ere izan zen. Esteban de Garibaik Zuzenbidea atsegin zuen, baina aitak zera gomendatu zion: legeak alde batera utzi, eta Historia ikastea. Horrela egin zuen, eta historia-ren esparrua izugarri gustatu zitzaion. Gainerako ikasketak alde batera utzi, eta historia ikasten jardun zuen buru-belarri.

1556an, Catalina de Asurdui andrearekin ezkondu zen, Arrasaten bertan. Arrasate izan zen bikotearen bizileku, eta ezkondu berri hasi zen historiaren eta antzinako kontuen gainean idazten. Urte bi geroago, 1558an, Arrasateko jauntxoan alferiz izendatu zuten, eta frantsesen kontrako eta Donibane Lohizune deuseztatu zuteneko erasoaldietan parte hartu zuen.

*Esteban de Garibaik
Zuzenbidea atsegin
zuen, baina aitak
Historia ikastea
gomendatu zion*

Hurrengo urtean, 1559an, inkisizioaren kide izendatu zuten, Arrasaten. 1560an, Esteban de Garibaik jaiotetxea berritu zuen. Urtebete geroago, 1561ean, bidaia luze bati ekin zion. Iberiar Penintsulan zehar ibili zen, dokumentu historikoak jasotzen. Dokumentu horiek baliagarriak izan ziren bere lanak aurrera eramateko.

Lan hori egin eta gero, 1663ko udan gaixotu egin zen, eta hainbat hilabete eman zituen burua altxatu ezinik. Gaixotasuna gaintuta, bere lanekin jarraitu zuen. Denboraldi bat idazten ematen zuen, eta gero bidaiaren bat edo beste egiten zuen. Horrela igaro zituen hurrengo urteak. 1570ean, Flandesera joan zen, eta *Historiaren laburpena* egin zuen. Urtebete egin zuen han.



XABIER URZELAI

Esteban De Garibai Arrasaten jaio zen; hari eskainitako monumentu bat ere bada herrian.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2002ko azaroaren 22a / 48. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Iturbide egoitzan sartu ahal den aramaioarren kopurua, zehaztuta

UBANE MADERA

Arrasateko Udalak zehaztu egin du zenbat aramaioar sartu ahal izango diren Arrasateko Iturbide egoitzan. Horren ondorioz, oraingo asteko Gobernu batzordeak onartutakoaren arabera, lau aramaioar sartu ahal izango dira Arrasateko egoitzan. Gaur egun, bi lagun daude Iturbide egoitzan.

Aramaioar askok Arrasate alde-ara egiteko joera dute, batez ere, gertutasunarengatik. Gauza bera gertatzen da herriko pertsona nagusiekin. Haiendako eta haien senitartekoendako askoz eroso-agoa da Arrasateko egoitzara joatea Gasteizko egoitzaren batera joatea baino.

Hori dela eta, Arrasateko Iturbide egoitzan lekua gordeko diete aramaioarrei; hau da, Deba-

goieneko bestelako herrietako pertsona nagusiei ematen zaien tratua bera emango diete. Horren ondorioz, oraingo asteko Arrasateko Gobernu batzordeak erabaki duenez, Aramaioako lau lagunendako lekua izango dute Arrasaten. Hain zuzen ere, euren bizimoduan bestelako pertsonen beharra duten Aramaioako lau pertsona nagusi sartu ahal izango dira Iturbiden; hau da, beste-ekiko dependenzia dutenak edo dependenzia handia dutenak.


Lau pertsona horien finantzetari dagokionez, berriz, hitzarmena sinatu beharko dute Arabako Foru Aldundiak eta Arrasateko Udalak. Edozelan ere, foru aldundiek ezarri berri duten dekretu berriak arautuko ditu zerbitzu horren ordainketaren nondik norakoak.

Arrasateko Udaleko Gizarte Saileko teknikari Iñigo Garitanok esan digunez, lehendik ere badi-ara aramaioarrak Iturbiden; kontua da, oraintsu, egoitza horretan sartzeko sistema aldatu egin dutela eta zehaztu egin dutela sartu ahal diren aramaioarren kopurua. Iñigo Garitanok gaineratu digunez, gaur egun, bi aramaioar daude Iturbide egoitzan, eta beste bik egoitzan sartzeko eskera egina dute.



IKER BARANDIARAN

Gaur egun, Aramaioako bi lagun daude Iturbide egoitzan.



Aitor Unamuno, bigarren, Araban

Aitor Unamuno aramaioarrak bigarren postua eskuratu zuen joan den zapatuan, hilaren 16an, Koartangon jokatu zen Arabako Ehiza Txapelketan. Kontatu digunez, berarekin joan zen epaileak istripu txiki bat izan zuen, eta, horren ondorioz, proba irabazi zuena baino hiru minutu geroago sartu ziren kontrolera. Hori bai, txapeldunak berak bezain beste txori botatzea lortu zuen. Eta, jakina, bigarren postua eskuratu zuenez, abenduaren 1ean jokatu den Euskal Herriko Ehiza Txapelketan parte hartuko du aramaioarrak. Gainera, Ekaitz Abarrategi aramaioarra eramango du Aitorrek epaile gisa.

Idazkari lanpostua betetzeko deialdia

UBANE MADERA

Aramaioako Udaleko idazkari Aitor Leturiondo badoala-eta, haren ordezkoa hartzeko lanpostu deialdia egin du Aramaioako Udalak. Interesa duenak curriculumak aurkeztu beharko du datorren azaroaren 28a baino lehen. Esperientzia izatea baloratuko dute.

Idazkari eta kontu-hartzaile lanpostua betetzeko deialdia egin du Aramaioako Udalak. Zuzenbide Politika Zientzietan eta Soziologia edo Ekonomia eta Enpresa Zientzietan diplomadunendako edo lizentziadunendako zuzendu dute deialdia. Era berean, beharrezkoa izango da Laugarren Hiz-

kuntza Eskakizuna izatea. Edozelan ere, hirugarrena dutenak ere aurkeztu ahal izango dira lanposturako, eta gero, euskara frogare egingo diete.

Aramaioako Udaletik jakinaz, digutenez, lanpostua betetzeko interesa dutenen curriculumak jasoko dituzte, eta gero, epaimahai batek hamar aukeratu dituzte. Hamar horietatik elkarriketa egingo diete, eta lanpostura ondoen egokitzen dena aukeratu dute. Curriculumak eguna (azaroaren 28a) baino lehen aurkeztu beharko dira.

Informazio zabalgoa gura duenak Aramaioako Udalera dei dezake (945 44 50 16) edo Aramaioako Udalaren helbide elektronikora idatzi (udala@aramaio.org).



Langileak idazkari eta kontu-hartzaile lanpostua beteko du Udalean.

LABUR

San Martin Eguneko zozketako irabazle bila

Oraindik ez dira agertu San Martin egunean egin zen zozketaren irabazleak. Hiru sari ziren: lehenengoa, txerri eder askoa, 1.271. zenbakiak eskuratu du. Bigarrena, bost kilo txuleta, 340. zenbakiak eskuratu du; eta hirugarrena, bi lagunendako bazkari edo afari goxoa, 1.178. zenbakiak eskuratu du. Hortaz, komeni da irabazleak lehenbailehen joatea sari bila. Antolatzaileek, Barea Pilota Elkarteak, alegia, hila-bete eman du sariok hartzeko.

TXIRRITOLA

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zubiako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoaren duten orduetan eskaeraren araberako zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan delitu behariko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

SANTA ZEZILIA EGUNA

Musikarien zaindariaren eguna ospatuko du Bizente Goikoetxea Abesbatzak domekan, hilaren 24an. 12:00etan, Abesbatzak meza abestuko du, eta 14:30ak inguruan bazkaria egingo dute. Bestalde, dagoeneko Gabonetako kontzertuak gertatzen ari dira. Izan ere, besteak beste, abenduaren 28an, Alegría-Dulantzin (Araba) abestuko dute.

ZINEA

Monstruos SA filma aukeratu dute oraingo domekarako. Betiko moduan, kultura etxean izango da film emanaldia, 17:00etan.

TXANGOA AGURAINERA

Itur-Zuri Emakume Elkar-
teak antolatuta, Agurainera txangoa izango da datorren abenduaren 14an. Besteak beste, moja klaratarren komentua eta Aguraingo alde zaharra bisitatuko dituzte. Irteera 15:30ean izango da, eskolatik, eta itzulera, 20:00etan. Bazkide-
ek hiru euro ordaindu behariko dituzte eta bazkide-
ek ez direnek, bost. Izena emateko azken eguna azaroaren 29a izango da.

ARETO FUTBOLA



Emitza ezin hobea aurreneko partiduan

Argazkian duzue Bañerako kadeteen aurtengo talde ofiziala. Alberto Unzalu entrenatzaileak gidatuko ditu gazteak. Joan den zapatuan jokatu zuten lehen partidua, eta emitza ezin hobea ekarri zuten: 16-2 irabazi zioten San Jose taldeari. Hurrengo partidua bihar, zapatua, jokatuko dute Izarrako Lan eta Jolas taldearen kontra, 11:30ean etxean. Bestalde, Bañerako nesken taldeak ere zapatuan jokatu du lehen partidua, 11:00etan, Hegoalde kiroldegian, Virgen Niña taldearen kontra. Eta gazte mailakoek, Urgatziren kontra dute partidua, 10:30ean, etxean.

ARAMAIOKO AUZOAK



Idatzi berezia Gantzagatik

Juen dan asteko argazkixen seigarren muslarixe falta zala eta...barriri be argazkixak errebeletan eruen dittuau, eta beittizue zer agertu dan! Markos Beetikue bere bikotekidiei datorren urterako animuek emuten! Hau da monagillue hau! Txapelketan hirugarren lekureino heldu ei zien, beñe deabrukerixan bat tarteko. Horren bildurrez, datorren urtien mus partida danetan abareren bat egongo ei da, pentsamendu txar eta joku okerrrik gertau ez dein. Bixen bittartien, errezaug daigun Ave Mariatxo bat gure muslari arimie garbi mantendu daigun. Amen

BOTEPRONTOAN/ Olga Jauregi · Liburutegiko arduraduna

“Ez da askorik irakurtzen, baina irakurtzeko ohitura dutenek asko irakurtzen dute”

Aramaioko jende askok eza-
gutzen du Olga Jauregi, Ahura da-eta herriko liburutegiko arduraduna. Aramai-
arra da Olga, kalekoa, haren esanetan. Geografia eta Historia ikasi du, baina, gaur egun moduan, liburu artean murgilduta ibili izan da urte askoan:

Noiztik zara liburutegiko arduraduna?

Iaztik, urria ezker; hain zuzen, kultura etxea inauguratu zutenetik. Baina lehenago ere ibili nintzen, liburutegi zahar-
rean, Mari Tere erretiratu zenean: 1988tik 1992ra arte. Gero, Arrasaten ere ibili naiz, Santa Marinako liburutegian eta Monterronen; baita Eskoriatzako Udal Liburutegian ere, beste hiru urtez.

Liburuak oso gustuko dituzulako zabilta liburuzain?

Gustatzen zait irakurtzea, eta irakurtzen dut; baina kontua da liburutegietan hasi nintzela lanean, eta hementxe jarraitzen dut; gainera, lana atsegina da. **Zelako irakurleak dira aramaioarrak?**

Orokorrean, alde guztietan antzera ibiliko direla uste dut. Ez da askorik irakurtzen, baina irakurtzeko ohitura dutenek asko irakurtzen dute. Badira



“7.000 liburu inguru ditugu hemen, gaztelaniaz gehiago izango dira euskaraz baino”

batzuk noizbehinka datozenak...

Zer irakurtzen dute, bereziki, Aramaioko emakumeek, gizonak eta umeek?

Emakumeek, bereziki, emakumeendako idatzitako nobelak, nobela erromantikoak (Victoria Holt, Danielle Steel,...); bestalde, badira Noah Gordon, Ken Follet eta horrelako idazleak. Irakurtzeko liburu errazak dira, nahiz eta potoloak izan, samur irakurtzen direnak. Gizonek, berriz, gurago izaten dituzte intrigazkoak, hilketak... Eta, azkenik, umeengan asko sartu dira ordenagailuak, hor ibiltzen dira. Baina irakurri ere irakurtzen dute, abenturazko eta beldurrezko nobelak, batez ere, baita komikiak ere: *Harry Potter*, *Manolito Gafotas*... **Zenbat liburu dituzue hemen?**

7.000-edo. Gaztelaniaz gehiago izango dira euskaraz baino; edozelan ere, azken urteotan, urtean euskaraz idatzitako liburu gehienak Eusko Jaurlaritzak bidaltzen dizkigu, eta, horren ondorioz, euskarazko liburu dezente daude. Berritasunak ere beti erosi behar izaten ditugu...

Eta bideoak ere badira...

Gutxi, baina gaztetxoendako zerbait bai; diru askorik ez dugu, hortaz... Eta hiru ordenagailu ere badira. Denetik dute ordenagailuek, baita Internet ere, eta doan da. Fotokopiagailua ere badugu, inpresora, aldizkariak...

Ondo hornituta, orduan; edozelan ere, igartzen duzu zerbait faltan?

Liburuak erosteko nahiko mugatuta gaude diru aldetik, eta ibiltzen gara arlo guztiak betetzeko ahaleginetan. Bestalde, animazio ekintzetarako ere ez litzaiguke gaizki etorriko dirulaguntza gehiago. **Gomenda iezaguzu liburu politen bat...**

Umeendako, *Harry Potter*. Emakumeendako zein gizonendako, Ken Folleten *Los Pilares de la Tierra*. Eta euskaraz, berriz, Unai Elorriagaren *SPrako tranbia*.

“Liburuak erosteko nahiko mugatuta gaude diru aldetik eta ibiltzen gara arlo guztiak bete nahian”

ERRETRATUZAHARRA


San Juan de Dios ospitaleko idi galanta

Irudiotan ikusten duzuen idi mardul hori Santa Ageda auzoko San Juan de Dios ospitalekoa zen. Biziki estimatzen zuten idia ospitalean, gauza askotarako erabiltzen zuten-eta. Gure berriemaileak kontatu digunez, ospitalearenak ziren lursail guztiak (ortuak, eta abar) idi handi haren laguntzarekin lantzen zituzten; lursail guzti-guztietan jarduten zuten, eta ez ziren gutxi.

Horrez gain, noizbehinka, gurdia lotzen zioten eta kamioi lanak ere betetzen zituen idiak; Arrasatera etortzen zen, ospitaleko gauzak hartzera edo eramatera.

Baina, apurka-apurka, idia handituz joan zen, pisua hartzen. Larregiko pisua. Horren ondorioz, hankak makaldu egin zitzaizkion, eta azkeneko ez zuen lanerako balio. Hortaz, saldu egin behar izan zuten.

Oraingo asteko argazkian, hain zuzen ere, idiaren saltzailea eta eroslea ageri dira. Saltzailea eskumako gizonetzkoa da, makiladuna: Rufino Agirre, San Juan de Dios ospitaleko



harakina. Eta haren ondokoa, berriz, eroslea da, Donostiako harakin bat. Eta idiaren beste aldean, batetik, Donostiako hiltegiko abere-hiltzailea agertzen da (txapelduna eta biboteduna), eta, bestetik, hiltegi bereko garbitzailea.

Trenez eraman zuten idia Donos-

tiara, hiltegiara. Eta han, hiltegian, lehenengo saria eman zioten, horren eder eta handia izatearren.

Bestalde, bitxikeria moduan gure berriemaileak kontatu digu Santa Agedako idi haren txuletak, besteak beste, Arrasateko *Mondragonés* pilotariak jan zituela.

1931-32 urte inguruan atera zuten argazkia, Donostiako harakinaren harategiaren ondoan.


Argazkia eta informazioa: Joxe Agirre
Urtea: 1931-32

NOLA ALDATUDIRENGAUZAK

Maala kaleko ermita eta ospitalea

Maalako ospitalearen berri 1448ko dokumentuetan azaltzen da lehenengoz. Ospitalearen ondoan ermita bat zegoen, eta eraikin bi haiek 1771n bota zituzten. Ospitalea zegoen lekuan Maalako etxea eraiki zuten, argazkian azaltzen dena.

Eraikin hura ia berrehun urtez egon zen zutik, eta 1955eko abenduaren 28an bota zuten, Inuzente Egunean.




≈ 1950

Argazkian azaltzen den Maalako etxea garai baten ospitalea eta ermita zeuden lekuan eraiki zuten.



2002

Maalako etxea 1955ean bota zuten, eta gaur egun, eraikin hura zegoen lekuan zirkulazioa bideratzeko biribilunea dago.



Danona

KARROZERIAK

Konponketak txapa eta pintura

Musakola auzoa, 15 • ARRASATE • Tel.: 943 79 58 06

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE



ARRASATE
HOTELA

Biteri, 1
Tel.: 943 79 14 16
ARRASATE

Aretz

Taberna

Markole, 5
943 79 14 67
ARETXABALETA

Arrasate Irratia

Beti airean.

24 ordu etengabe emititzen



parte hartu irratian

Tel.: 943 71 17 31
e-posta: irratia@goiena.com

FM107.7  **ARRASATE
IRRATIA**

emakumeok bizi dugun indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna

azaroak
25



Gure gizarteak gaur egun duen arazorik larrienetakoa da emakumezkoek jasaten duten era guztietako biolentzia. Etxeko tratu txarrak, sexu erasoak, sexu jazarpena, genitalen mutilazioa, emakume eta neskatilen trafikoa, sexu esplotazioa, eta abar, biolentzia horren adierazpen desberdinak dira. Denak dira emakumeen duintasunen aurkako eraso zuzena, eta, horren ondorioz, giza eskubideen bortxaketa larria eta onartezina dira.

Horregatik, arazoari konponbidea bilatu nahi badiogu, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna lortzeko lan egin behar dugu.

Horregatik guztiagatik, zatozte azaroaren 25ean, arratsaldeko 7etan, Arrasateko herriko plazan egingo den kontzentrazioa.

Zure ardura ere badelako, zatoz!



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Emakume Sails



ARRASATEKO
EMAKUMEEN
KONTSEILUA